

# BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ\*

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)

321n. zenbakia

2006 urrilla



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

# BERRI ONAREN ZATIA

## Santu Mateok 1.18-2 arte. "Texto original Griego"tik artua

1  
Santu Mateok esaten digu  
Ebangelio liburuan.  
Jesukristo'ren jaiotza degu  
era onetan munduan.  
Esposatua zan bere ama  
Maria izena zuan  
gizaseme bat Jose izenez  
senarra zenkan onduan.

2  
Alkar ikutu baiño lenago  
au izan zan gertatua  
Jaun Espiritu Santuak zuan  
Marian aurra sortua.  
Bere senarra Jose zalako  
on utsa edo justua  
etzuan eman nai izan parte  
azturik lege kontua.

3  
Baiñan ixilik apartatzea  
Josek erabaki zuan  
arrats batean lotaratuta  
asmo onetan zeguan.  
Jaunak aingeru bat biraldurik  
esana zion orduan.  
Dabid erregen semea zala  
Josek oroitzen al zuan.

4  
Jose etzazu bildurik izan  
emaztea lagatzeko  
Jaun Espiritu Santuan lana  
izan du aurra sortzeko  
argitaratuko du seme bat  
bere erria salbatzeko,  
eskatzen dizut seme orreri  
Jesus izena jartzeko!

5  
Onela dana gertatu zan au  
zeturrena etortzeko.  
Igarle santu Isaias'ek  
idatzia betetzeko.  
¡Ara Birgiña seme bat sortu  
eta argitaratzeko,  
Jainkoa gugan esan nai duan  
Emanuel izendatzeko!

6  
Ondorenean esnaratu zan  
Jose ametsetatikan  
ta egin zuan Jaunaren naia  
entzun bezela pozikan.  
Etzuan laga bere emaztea  
aurdun argitu gantikan.  
Ikutu gabe zuan seme bat  
zeukan Jesus deiturikan.

## San Lucas 1.25-39 arte. "Texto original Griego"tik artua

1  
Lucas Santuak esaten digu  
Ebangelio liburuan.  
Jaunaren naiak Goi aingeru bat  
Gabriel biralduzuan,  
Galilea'ko Nazaret'era  
birgiña bat an zeguan,  
esposatua zan eta andik  
seigarren illa zijuan.

3  
Senarra zuan Jose izenez  
Dabid'en jatorrikoa,  
eta birjiña emaztea zan  
Maria izenekoa.  
Gabriel onek Mariari zan  
Onela esandakoa.  
¡Jainkoak salba graziz betea  
zuzenik Jaun betikoa

3  
¡Bedeinkatua zera Maria  
andre guztien artean!  
Au entzuteak zer ote zion  
jartzen du bildur betean.  
Goi aingeruak ¡Ez bildur izan!  
esan zion ikustean,  
Orra Maria grazia argitu  
zenduan Jainkoz batean.

4  
¡Sortuko dezu seme bat eta  
ipiñi Jesus izena,  
Au izango da Alguztidunan  
seme deituko diena.  
Juan da Jainkoak emangodio  
aulki Dabid'ek zuena.  
Bere erreinua izango da goi  
ta azkenik ez duena!

5  
Mariak auxe aingeruari  
esana zion orduan,  
Nola gertatu leike gauza au  
birjin biziaz munduan  
gizasemerik ez ikutzeko  
nere itza eman nuan!  
Santu Gabriel Mariak zeukan  
etxe baruan onduan.

6  
Aingeruak au erantzun zion  
¡Jaun Espiritu Santua"  
etorriko da zu izatera  
Alguztidunak artua.  
Bere bitartez izango zera  
Ama Birjin gelditua,  
izango dezu Santua seme  
Jainko Semea deitua!

7  
¡Ara Isabel zuk lengusua  
bizi zan agor zartuta,  
eta siegarren illean dago  
Jaunak seme bat sortuta.  
Jaunarentzako gauza ezinik  
ezin leike agertuta!  
Andre Mariak sinistu zuan  
gurekin errukituta.

8  
Mariak esan zuan orduan  
apaltasunez onela.  
¡Emen naukazu Jaunaren mirabe  
serbitzaria naizela,  
Egin bedi ba neregan ori  
esan didazun bezela:  
Ta aingeruak laga egin zuan  
Jauna Gizondu zeilea.

Sor Justina Aldaluz  
Katarra - Gasteiz

bbk=

## 6.– EDESTIA: Kristo errien askatzaillea

Israel erriaren edestia, erri guztien edestia da., baiña Israel'ek idazleak izan ditu eta Biblian daukagu bere edestia. Erri bakoitxak be bere edestia dauka, Jainkoaren indarrak barrutik bultz eginda,

Israel erriaren edestiak Kristo dau ardatza eta beste erri guztien barruan be Kristo ardatzaren eragiña zomatuko dogu.

Erriak, Israel'en antzera, batzutan buru-jabe izaten dira, beste batzutan iñoren buztarribean, baiña beti dauke ondoan Kristo, Aitak bialdua, errien askatzaillea.

Kristo'k dakarskun askatasuna ez da politikazkoa. Edozein egoeretan gagozala, askatzaille Kristo dogun erria gara.

Gogoratu daiguzan Kristo'ren askatasun-indarra gure barruan agertu daben jazokizun batzuk.

Zelan, esaterako, ain indartsua zan erromatarren erriak ez eban menperatu Euskalerra? Zelan ez zan galdu euskerea eta gure jakintza bereizia? Beste zertzelada batzuk bide dirala lortu zan ori (mendiak esaterako) baiña barruan errien askatzaillea dana ebillen.

Edo "domuit vascones" esan eta esan eta gudak egin eta egin ibilli ziran bizigotak zelan ez eban lortu euskaldunak menperatzea eta gure gotzaiñak Tolodo'ko Batzar Nagusietara eroatea? Askatzaillearen indarra egoan or atzean, Israel'en egon zan antzera.

Eta iparraldetik ain sendo agertu ziran frankoak nok geratu ebazan Auñamendiaren barrenean? Orrelan bete ziran beti gure Txomin Agirre elabarrigillearen berbak: Begoz goikoak goian, (Auñamendia'n) eta bekoak beean, Auñamendi'ko lorea bere elbarrian diñoan lez.

Asturias'tarrak gure adiskide egin ziran eta emengo amazteak artu ebezan (Balpuesta'n) ango errejiñak izateko, eta Bizkaia izena antxe agertzen da lenengoz, euren erreñuko zatia dala esateko, baiña guk euskaldunak izaten jarraitu gendun. Errien askatzaillearen laguntzaz.

Eta. amaitzeko; España'k eta Frantze'k gizaldien joanean egiten daben alegiña aitatu bearko dogu:Gure batzarretara beti sartu eban euren muzturra eta euren korrejidorea ipiñi euskuen, gure lege zarrak gizaldirik gizaldi kentzen joateko. Ez dogu aitzu bearko Bergara'ko besarkada lotsagarria edo Espartero'ren ezpata etoia. Ekonomi-ituna baiño ez zan geratu eta au be Franco'ren guda zitalak kendu euskun.

Dana galduta egoala zirudian, baiña etorri dira erri-agintaritzaren aldiak eta Gernika'ko Araudiaren indarra, eta bide orretatik darraio Askatzaillearen indarrak gure erriak bere nortasuna eta bere buru-jabetza galdu ez dagizan.

Bear ba'da irakurleak esango dau: Ez da ikusten edestian Kristo erria askatzen! Ez zan ikusten Israel'en be, baiña fededunak beti esaten eban ondapan bat etorkenean Jainkoaren zigorra zala eta irabazi bat lortzen ebenean Jainkoaren saria zala. Guri ez jaku peitzen Askatzaillea, fedea da peitzen jakuna.

Jainkoa beti doa norkien eta errien ondoan geugaz bidea egiten. Eta, egia esateko, beste erri aundi batzui baiño geiago lagundu dauku guri. Areik il ziran, Erroma esaterako, eta gu bizi gara.

Israel'en Askatzaillea, erri guztien askatzaillea da.

OLAZAR'tar Martin'ek

### EUSKERAZALEAK

Euskal Asea: 2006-11 20'tik 24'ra (8'retan)

- 20.– ASTELENA: Bertsogintza zelan irakatsi (Legarreta'tar Asier'ek)
- 21.– MARTITZENA: Juana Albrit Nafarroan (I) (Atutxa'tar Paul'ek)
- 22.– EGUATENA: Filosofiaren edestia (Olazar'tar Martin'ek)
- 23.– EGUNA: Internet eta euskerea (Uriarte'tar Ana'k)
- 24.– Barikua: Juana Albrit Nafarroan (II) (Atutxa'tar Paul'ek)



#### IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

- EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:
- Ipuñiak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
  - Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
  - Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Sariak irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
  - Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillan.
  - Sariak bost izango dira:
 

1.ª 300,50 euro	4.ª 120,20 euro
2.ª 240,40 euro	5.ª 60,10 euro
3.ª 180,30 euro	
  - Ipuñiak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
  - Epea abenduaren azkenera arte.

EUSKERAZALEAK

## EDORTA JIMENEZ ETA ATXULO

Bat nator, Edorta, zeugaz, bete-betea: gure errian bear baino larregizko zementokeria dago. Guretariko askori orrek begietan min ezeze, biotzean be eragiten deusku, min sarkorra eraginda. *Atxulo* izeneko lekuaren barri emon zenduan leengo aldi (aurtongo bagilean) eta GARA egunkarian. Ez dakianarentzako, *Atxulo* da izan, Bakion lotuten diran ingururik magikoenetan gitxienetarikoa, alangoak geroago eta gitxiago dira-eta, zoritxarrez. Bertara parajetuteko barria ekarri zeuntsen oinezkoeri. Onartuko ete deustazu, Edorta, zuk an esandakoari lerrootan bertoko soinekoa apur baten jantziten badeutsot. *Igeltsera* izeneko lekuan dagoan biribilunearen ondoan dago *Axadako* begiralekua, *Arbeburu* dalako lurraren ertzean eginda. “Bunkerra”, erri-tar askoren agoetan, kanoiak baino ez ditu falta eta. *Oiaga* izeneko inguru andi-zabalean dago *Otalarra* lekua, *Otalarra* eta begiralekuaren goiko alderdiaren artean *Atxuloko bidea* zabalduko da aurbeeran, *Oiagan* barrena. Bideon aurrera, bidez bide elduko zara *Atxulora*. Bidean berreun metro ibili-edo, laster asiko zara aurgoran, *Oiagako kantarearen* parean, berau ezkerrean dagoala. Leentxuago, eskoian eta goialdean, *Karabia* izeneko lekua atzean itziko dozu. Bein aurgoran asita, *Oiaga* ganetxurantz egingo dozu. Txuntxurera eldu eta arritzko kurutze zaarra ikusiko dozu, *Oiagako kurtzea*. Orreitariko iru kurutze egon ziran inguruon, aitatutakoa, *Atxuloko kurtzea* eta *Larrazaineko kurtzea*. Azken au, 1978. urtean zoritxarreko baten batek galdu eragin eban. Kurutze atan 1.781 urtea egoan idatzita.

Urte atan, Britainia Andiko korsarioak Gaztelugatxe eta inguruari eraso eta triskantza itzelak egin ei ebezan, eta ori dala-eta, iru kurutzeok, aurki. *Oiagako* txuntxurretik bizkarrereko bidezidorrean beera, bada, *Atxuloko* atxetegino elduko zara. Onako bidean, eskoatara, *Atxulo* alde-etea eta beeratxuago, sakostan sartuta, *Oiagaerreka* ikusiko dozuz. Errekatzu au ur-jauzi txiki eran urtuko da itsasoan *Atxuloko* atx nagusi bien artean. *Sokatxe*, eskoiko atx nagusiaren ganean, barriz, *Atxuloko kurtzea* topauko dozu. Ezkerreko atx nagusia, zulodun atxa, atxulua.

Zeuk idatzi moduan, oraindikarren inguru polita, erakargarria, miragarria, ... magikoa dala esango neuke nik. Baina jagon bakoa. Bada urte mardotxua inguru a guztia jagoteko erregua egin gendua. Batzuk entzungor, batzuk gitxi eritxiz, beste batzuk ardurarik artu ez, ori besterik ez da izan era guztietariko erakunde publikoen erantzuna. Inguru geroago eta laskinago, galduago, zati baten naturgune izentauta egon arren be. Norbanakoak botatoko sastarrak bearen ganean eurrez ikusiko dozuz, edonon. Zementoa eta erosinoa dira agirikoak an be, a jagon eta eutsi bearean. Egoera ori errian darabilen urigintza politika basati eta neurribakoagaz bat dator, antza. Erriari berari izena aldatu bear jakolakoan nago. Alan bada, “Zementakio” izen toponimiko-deskriptibo barria proposauko dot nik.

Iniaki MARTIARTU  
BAKIO

## EUSKEREA GERNIKA-N

Gure gaste-aldian txapel-okarren semeak eurak be, euskeraz ekien, Gernika-n. Neskatilla arroen batzuk baiño ez eben egiten erderaz, besteak baiño jakitunagoak ziralakoan-edo. Eta erderaz egiten eben apurak be, euskal-berbak erabilten ebezan euren autuetan.

Gernika eta gure erriaren, Aiengiz-en, erdian dagon ibar zabalean erri biak bananduten dauzan Oka, itxasgorea be elduten dan ibai urtsua ta ederra dago. Bai ibaian eta berrekondotik datorren errekan be ainbat ugartoki geunkazan baia gu geu, ibaiko uresian, ur sakon eta gardenezkoa izaten genduan gogokoena eta araxe joaten gintzazan uger egiten eta baita gernikarrak be. Eta erderaz egiten eben apurak aulako erderakadok esaten abezan: *Salta buruzbera, hasta los ziriz he ido* eta abar. Ziri-moltzoa egoan ba, ugertokiaren beste aldean eta araxe joan-etorria egiteak, ugar egiten ondo ekiala esan gura eban.

Eskuak aurrerantz luzatuta buruz bera uretan sartu-urtena egitea da mustadea eta must egiten ez ekienari edo egiten bildur zireanari esaten eutsen *salta buruzbere*.

Orain bere erdera asko entzuten danarren, euskeraz be askok egiten deu Gernika-n: umeak ikastoleri esker askok dakie, erdeldunen seme-alabak be, geienek dakie, naizta guk lez ondo egin ez.

Euskeraz iñoz erabili ez dogunzan adizkera lorrin batzuk entzuten dira orain: *Ezin da egin, ezin naz joan, ezin dogu jan* eta abar. Idazle ontzat eure baruak daukezenanak be, euskaldun jatorreri entzumenak minberatuten daukuezan olakexe erderakada lorriñak esan eta idazten dabez; euskera jatorrari mesedetako beste kalte egiten diarduen olako esaketa ta idazkera lorrin eta erderakada itxusi ta ganorabakoakaz. Ez dekiaz *neiteke, zaiteke, daiteke leiteke* eta abar aditz jator eta datorerik dagoanik: Zentzuneratuko al dira, euskerearen onerako, *euskeltzale jakitunak*.

Aurraiz'ek

# \*EDIN ADITZ HIPOTETIKOAREN ORAIÑALDIKO ADIZKIAK

\**Edin* infinitiboaren izena Van Eys holandarrak asmatu eban. Ez dakigu zer esangura daukan. Geien erabilliak adizki onek dira : *nadin, adin, dadin, gaitezen, zaitezen, ditezen*. Aldaketa batzuk badagoz euskalkietan baiña ez ditugu ipiñiko ez luzatzeagatik. Badirudi, singularreko eta pluraleko adizkiak aditz bi ezbarriñetatik datozela. *Nadin*-en plurala *gadizan* izan bear leuke eta ez *gaitezen, adin*-ena, barriz, *zadizan* eta *dadin*-ena, *dadizan*. ¿nondik datoz, orduan, *ga-it-ezen, za-it-ezen, d-it-ezen* ? Oartu zelan dauken tartean sartuta *izan*-en sortutako *-it(za)* > *-it-* pluragillea, ta ori *izan*-ena izan leiteke bakarrik

Barrero be, ipiñiko doguz oraiñaldiko irugarren sujeta pertsonaren pluraleko adizkiak :

	<i>d-ir-a</i>	<i>ellos son</i>		(intransitivo)
	<i>d-it-u-Ø</i>	<i>ellos son</i>	habidos (por él)	(transitivo)
( <i>izan</i> )	<i>d-it-ezen</i>	<i>ellos sean</i>		(intransitivo)
( <i>izan</i> )	<i>b-it-e</i>	<i>sean ellos</i>		(intransitivo)
( <i>izan</i> )	<i>d-it-zaten</i>	<i>ellos sean</i>	habidos por ellos	(transitivo)
( <i>izan</i> )	<i>b-it-za-Ø</i>	<i>sean ellos</i>	habidos (por él)	(transitivo)

Sei adizki oneen asiera bardiñak, ez litekez izan eta ez dira sei kasualitate soil-soillik baizik eta gauza sakon-sakon baten adierazgarri. Danak asten dira *b-* edo *d-*gaz, urrengo izkia *-i-* dalarik. Lenengo eta bigarren pertsonetan, *-i-* orren aurretik *-a-* ikusten da, *ga-it-u, ga-it-ezen, za-it-zan*. Onek esan gura dau *izan*-en adizkien sorreran gertatu zala aldakuntza garrantzitsu bat, *baitza* pluralerako adizkia, *baiza* singularrekotik obeto bereizteko, *-i-* kendu jakola *bitza* egiñez. Orduan, or ipiñi dituguzan sei adibide bakoitzaren lenengo zatiak, *b-it...* edo *d-it...*, danak bardiñak, irugarren pertsonaren sujeta pasibo adierazten dabe, au da, *beurek dira* ‘ellos son’ indikatiboan beñik-bein. Orrela balitz edo baldin bada, *d-it-ezen, ga-it-ezen, za-it-ezen, izan*-en adizkiak dira ta ez *\*edin*-enak. Jakintsu guztiak esaten dabe indikatibotik atara dala subjuntiboa, *-n* ta *-la* geituz amaieran. Orduan, *izan*-en *gaitza + n > gaiten > gaite(ze)n ; zaitza + n > zaiten > zaite(ze)n ; ditz + n > diten > dite(ze)n*. *\*Edin* hipotetikoak, zer esangura daukan ez dakigun aditzak, ¿nola egin leiteke *izan*-ek egin zituzan aldaketa berberak, batez be, irugarren pertsona pluralean. Au ikusita, naiko argi dago, *\*edin*-enak zirala uste genduzan adizkiak ez dirala benetan bereak baizik eta *izan* beraren aldaketa bereziak.

Saiatuko gara oin singularrekoak adierazten. Askotan erabilli dira *den* eta *dela* adizkiak subjuntibo legez. Haraneder : *benedicatus dela* ; Duhalde : *den hala* ; Azkue : *dela kan dela* kemen ; *dena dela* esaera. Subjuntiboan dagoz baiña *izan*-en indikatibotik sortu dira. Azkue : *bera dela diote*. Baita be, *etorri den gizona*. Garbi ikusten dogu zelan *izan*-en adizki berberak modu bietarako balio dabela. Garai baten *izan*-en indikatiboko adizkietatik sortu zan subjuntiboa, au da, *izan*-ek euki eban bere subjuntiboa

Gauzak orrela, ¿nondik dator *den* ori ? Esanda dago gaurko *da'es* asko murrizturik dagola, asieran *daiza* izan bear ebalako. Baiña izkiak galtzen joan zan, lenengo *daiz* biurtuko zan *naiz*-en antzera eta gero *dai* ta azkenean gaurko *da*. *Dai, nai*, etab. adizkien lekukoak, gaur be bizirik dagoz Bizkaian. Orrela ba, *dai* orreri *-n* geiturik *dain* egin zan indikatiboko relatiborako eta subjuntiborako.

*Dain, ai > e* aldaketa unibertsalaren bidez, *den* billakatu zan, indikatiboko relatiboa ta subjuntiboa egiteko alde bategatik eta bestetik, *da-in* orren tartean *-d-* bat sartu jakon subjuntiboan eta *da-d-in* sortu zan. Barrero be esango dogu ez garala arritu bear edozer gauza gertatzen bada irugarren pertsonetan, or asten baitira aldaketa guztiak. Eta bein irugarren pertsonak aldatu ezkeror sortu ziran *nadin, adin*, analogiaren bidez. Begi bistan dago euskera euskalkitan banatu aurretik gertatu zala au. Baiña, ¿nola sinistu *-d-* ori tartekatzea ? Ainbeste adibide dagoz ori probatzeko. Ara :

Schuchardt : *zeizkion > ze-d-izkion* eta *zauzkit > za-d-uzkit*. Ithurry : *edin*-en *gi*-ren orde *-idi- da-idi-ke, ze-idi-keien, le-idi-ke*. Azkue : *ai > a-d-i* ta ez *adi > ai*. Baita be *oiu > oi-d-u* ‘clamor’. Uhlenbeck : ‘viaje’ > *bi-d-aje*. K. Izagirre : *violin > bi-b-olin bixixua > bi-di-xixua* ‘lombriz’, *bula > bul-d-a*. P. Aranguren : *leiquijo > leiqui-di-jo*. Leizarraga : *daqui-di-onez, gaqui-di-zten, conclu-d-itzen, cru-d-el*. F. Altuna : *cuido i-d-usten dut ta -d-* geitua dala. Oyharçabal euskaltzaiña : *bide-n* analogiatik > *bi-d-agia*. Haritschelar : *suerte > su-b-erte*. Añibarro : *aren > aen > ain > a-d-in, aiña > a-d-iña, ainbat > a-d-inbat*. Eitb. : erderazko vistazo > *bis-taizo > bista-d-izo*. Adibide asko geiago dagoz *-d-* tartekatzea gauza arrunta dala probatzeko, baiña ez dogu luzatuko.

Edozelan be, *\*edin* benetako euskal aditza dala probatzeko, beregandik eratorriak izan bear leukeen aditzak litzakez obenak. Presenteko datibodunak izan bear leukeez *\*na-dion, \*a-di-on, \*da-di-on* baiña ez dago onen arrastorik. Gramatiketan ikusten diranak *na-ki-on, a-ki-on, da-ki-on* dira, ta onek *ekin* aditzarenak dira ez *\*edin*-enak.

Bestalde, Larramendik ipintzen zituzan Gip. *na-tza-kion, na-tza-kizun, ga-tza-izkion, da-tza-kion*, etab., *izan*-en erroa begi bistan dagola. Baita be, or dagoz, Sul euskalkiko *gi-tza-keia, gi-tza-kion, gi-tza-kezun*, etab. BNor euskalkian, *naiz ta nakion, dakion*, etab. erabilli, *gi-tza-zkion, gi-tze-zkien, gi-tza-u-zkitzun*, etab. daukaz. Imperatiboan, *bekio, bekizu* baiña *bi-tza-u-zu, bi-tza-u-ztie*. Azken biak, errespetoko itanokoak Bonapartek ziñoanez. Orduan, *-tza-izan*-en erroa da ta *-u- \*edun*-ena. Aalezko datibodunak, BNor., *ni-ta-kio* baiña *ni-tza-u-kezu, di-ta-kio* baiña *di-tza-u-kezu, gi-tza-zkio* baiña *gi-tza-u-zketzu, di-tza-u-zketzu (tza > ta)*. Gip., *na-tza-kioke, da-tza-kioke, ga-tza-izkioke, etab.* Sul., *ni-ta-kio, di-ta-kio, gi-ta-kio*. Ez da ifion ikusten *-di-* erroa baiña bai askotan *izan*-en *-tza- > -ta-*.

Iker Joseba Laka Guenaga

# BAKIOKO ELEXALDE AUZOA

Erriko nortasunari eustea erritarrai eurai be bajagoken arren, arlo orretako gauza askotan, ostera, administrazioari jagoko ardurarik andiena. Administrazioak artu daroazan ebatzien artean, batzuetan, okerrekoak be artu daroaz. Okerreko orreek baina, goiz zein belu, zelan edo alan, arteztutekoak dira. Orreotarikoa da izan **Elexalde** auzo izena kendu izana. Erriko auzo orren izena, agaitik edo besteagaitik, beste izen bategaz ordeztu eben. Ebatzia erriko administrazioan artu eban. Ez zan izan ebatzi ona. Ebatzi ori artu ebenean, emoten dau, aurreritxi ideologikoak (erlijino-politikoak) pisu andiagoa euki ebela, errazoi zientifiko-istorikoak baino. Zer esanik be ez dago, erriko berezko nortasunari egin eutsen kaltea kontuan artu ezkerano.

Erriko benetako toponimia atzera eskuratu, normalizau eta aren bear-dan-letzeko erabilkerea egitea izango litzake mesedegarri, ezbai barik, etorkizunari begira, erriko nortasunean eta normalkuntza linguistikoa zuztar sendoa errotuteko. Erriak sortu, Erriarena izan dana (eta badana) Erriari berari atzera emotea da berton udalari proposauko jakona, alan bada: **Elexalde izena bera barriro erabiltea, berari egokoa lurraldeari, auzo fisiko-administratiboari, jagokola**. Azken baten, egindako okerreko istorikoa arteztutea.

Emetik aurrera agertuko dan informazioa orain arte egindako ikerketan oinarritu da. Ez da aaztu bear, aurrerantzean agertu leitezkean datu barriak berton esandakoaren oinarria aldatu leiena, ikerketea bera ez dalako, oraindikarren, arean be amaitu.

## ERRIKO ISTORIAN BARRENA

**Bakioko Basigoko** eleizatearen auzodien izenak, leenengoz, 1861. urtean agertu ziran<sup>1</sup>: **Arzaalde, Elejalde, Goitisolalde eta Urquizaurrealde**. Auzo orreen izenak danak batera eta leenengoz agertu ziran orduan. **Basigoko** lurretan, baina, **Mungiauzoa** edo **Mungia** **Uriauzoa** izeneko lurraldea egoan antxinatik. **Uriauzo** ori 12 aldeetxek egiten eben<sup>2</sup>, oneexek ziran: **Butroneche, Balanda, Seuba, Basarte, Uriarte, Gaubeca, Aldecoa, Ortubegoicoa, Ortubebecoa, Bidecurcio, Ibarrabecoa eta Ibarragoicoa**. 1882.05.24ko Dekretu Probintzialaren aginduz sartu zan dalako **Mungiauzo** ori **Bakioko Basigoko** eleizatean barruan, eta amabi aldeetxeok lurraldez baktaxari jagokoa auzoan sartu ebezan, au da, **Artzalde, Goitisolalde, Elexalde eta Urkizaurrealde** auzoetan, atan be.

Urte batzuk garrenean, **Bakioko Basigo** barrenean erriko bide nagusia izeneko egin zan (1888-1917), au da **Alegria** izeneko etxetik **Urzabal** izeneko alderdiginokoa, Larrauri (Emerando) eta Bakio arteko bidea egin zala-eta. Bide au izango zan, aurrerantzean, erabagigarri erriko norabide bateko edo besteko garapena egiteko, aren inguruan erriko urigunea sortu zalako<sup>3</sup>.

Alan bada, 1910. urtean agertu zan leenengoz errian “urigune” kalifikazioa, batez be, bide nagusiaren alboetan egozan etxerik geienak kalifikazio orren barruan sartuta. Ordura arte, erriko lurralde landalurtzat artuta egon ziran<sup>4</sup>. Esaterako, urte atan uriko kontribuzioa batuteko kontuan euki ebezan auzoak **Urquizaurrealde, Elejalde** eta **Goitisolalde** baino ez ziran izan eta urikotzat artutako etxeak iru auzootan barruan egozan etxe batzuk baino ez. **Artzalde** auzoko etxeak, ostera, kalifikazio orretatik kanpo lotu ziran, aurki. **San Pelaio** eta **Zubiaurrealde** auzoetan, barriz, ogeiren bat etxe artu ebezan urigunekotzat 1922. urterik aurrera, kontribuzioak batuteko orduko agiriak dakarrenez<sup>5</sup>.

1927.10.04an Madrilan onartu eben egun orretako Errege Lege Dekretuaren bidez, Bermeokoak ziran **San Pelaio** eta **Zubiaurrealde** auzoak andik banandu eta **Bakioko Basigora** batu ebezan, udalerri bakarra eginez, erriko auzoak lautik seira geituta: **Arzalde, Goitisolalde, Elejalde, Urquizaurrealde, Zubiaur** eta **San Pelayo**<sup>6</sup>. Andik eta urte gitxira, 1930.04.03an, erria auzootan banandu eta eratu eben, **Avenida de Alfonso XIII** izeneko kalea (erriko bide nagusia) ardatz zala:

alderdi baten, **Arzalde, Elejalde, Goitisolde**, eta **Urquizaurrealde**, eta bestean, **Zubiaur** eta **San Pelayo** auzoak<sup>8</sup>. Baina benetako mugea, azkenean, praktikan eta administratiboa be bai, erreka nagusia izan zan, **Zarragako erreka**. Baita aurrerantzean be. 1929. urtean,

<sup>1891</sup>: Orduko auzoak ziran: **Urquizaurrealde, Arzalde, Elexalde** eta **Goitisolalde**. (0291/001 - *Declaraciones para su inclusión en el padrón de la contribución rústica 1891-1892* - BAUA)

<sup>1893</sup>: Orduko auzoak ziran: **Urquizaurrealde, Arzalde, Elexalde** eta **Goitisolalde**. (0291/007 - *Declaraciones para su inclusión en el padrón de la contribución rústica 1893-1894* - BAUA)

<sup>1910</sup>: Orduko auzoak ziran: **Urquizaurrealde, Arzalde, Elejalde** eta **Goitisolalde**. (0291/002 - *Declaraciones para su inclusión en el padrón de la contribución rústica 1910-1911* - BAUA)

<sup>4</sup> <sup>1910</sup>: Urriko kontribuzioa batuteko kontuan euki ebezan auzoak: **Urquizaurrealde, Elejalde** eta **Goitisolalde** baino ez, egon be, uriko etxeak iru auzootan egozan-eta. Urigune orreri ez eutsen ezelango izen berezirik ipini. (0291/006 - *Declaraciones para su inclusión en el padrón de la contribución urbana 1910-1912* - BAUA)

<sup>1920</sup>: Orduko auzoak ziran: **Goitisolalde, Arzaalde, Urquizaurrealde, Elexalde**. (0284/010 - *Padrón de contribución territorial rústica 1920* - BAUA)

<sup>1922</sup>: Urriko kontribuzioa batuteko **Goitisolalde, Elejalde** eta **Urquizaurrealde** auzoetako urigunea izeneko agertu zan. Or ogeita hamarren bat etxe sartu ebezan. (H-00001 - *Contribuciones rústica, urbana e industrial 1922* - BFAA)

<sup>5</sup> <sup>1922</sup>: Urriko kontribuzioa batuteko **San Pelayo** eta **Zubiaur** auzoetako urigunea izeneko agertu zan leenengoz. Or ogeiren bat etxe sartu ebezan. Urigune orreri ez eutsen ezelango izen berezirik ipini. (H-00002 - *Contribuciones rústica, urbana e industrial 1922* - BFAA)

<sup>1923</sup>: Orduko auzoak ziran: **Urquizaurrealde, Goitisolalde, Elejalde** eta **Arzalde**. (0284/003 - *Instancias para comprobación de fincas rústicas y urbanas 1923* - BAUA)

<sup>1923</sup>: Urriko kontribuzioa batuteko kontuan euki ebezan auzoak: **Urquizaurrealde, Elejalde** eta **Goitisolalde** baino ez, egon be, uriko etxeak iru auzootan egozan-eta. (0284/004 - *Padrón de contribución territorial urbana 1923* - BAUA)

<sup>1924</sup>: Agertu ziran auzoen izenak dira: **Goitisolalde, Arzalde, Elejalde** eta **Urquizaurrealde**. (0048/002 (b) - *Padrón de fincas rústicas y urbanas 1922-1932* - BAUA)

<sup>6</sup> <sup>1924-1931</sup>: Uriguneko auzoak: **Urquizaurrealde, Elejalde** eta **Goitisolalde**. (0290/002 - *Listas cobratorias de contribuciones urbana, rústica e industrial 1924-1931* - BAUA)

<sup>7</sup> <sup>1927.04.28</sup>: **Alegria** izeneko kaleari **Avenida de Alfonso XIII** izena emon eta izen barri orregaz idazkuna imintea erabagi eben, **Alegria** izeneko etxetik areataginokoa dan kaleari, atan be. (0006/001-Bakio - *Libro de actas municipales 1922-1927* - BFAA)

<sup>8</sup> <sup>1927.10.04</sup>: Egun orretan agertu eben Errege Lege Dekretuaren bidez, Bermeokoak ziran **San Pelayo** eta **Zubiaur** auzoak andik banandu eta **Bakioko Basigora** batu ebezan, udalerri bat eginez, erriko auzoak lautik seira geituz: **Arzalde, Goitisolalde, Elejalde, Urquizaurrealde, Zubiaur** eta **San Pelayo**. (0001/018-Bakio - *Trámites del ayto. de Baquío para la agregación de los barrios de Zubiaur y San Pelayo 1924-1929* - BFAA)

<sup>1</sup> <sup>1861</sup>: Urte atan agertu ziran leenengoz **Bakioko Basigoko** eleizatearen lau auzodien izenak: **Arzaalde, Elejalde, Goitisolalde** eta **Urquizaurrealde**, eta ganera, lau izenok lauretara agertu ziran. (J-01348/061 - *División de la Provincia de Vizcaya en el orden judicial, municipal y eclesiástico 1860-1862* - BFAA)

<sup>1876-1884</sup>: Sasoi atan egozan auzoak: **Arzalde, Goitisolalde, Elejalde** eta **Urquizaurrealde**. (0005/002 - *Libro de registro de nacimientos 1876-1884* - BAUA)

<sup>2</sup> <sup>1882.05.24</sup>: Bakion egoan **Mungia** **Uriauzoa** edo **Mungiauzoa** (12 baserri) 1882.05.24ko Dekretu Probintzialaren aginduz sartu ziran **Bakioko Basigoko** eleizatean. Aldeetxe orreek ziran: **Butroneche, Balanda, Seuba, Basarte, Uriarte, Gaubeca, Aldecoa, Ortubegoicoa, Ortubebecoa, Bidecurcio, Ibarrabecoa** eta **Ibarragoicoa**. (R-0566/003 - *Límites jurisdiccionales 1881* - BFAA)

<sup>3</sup> <sup>1888-1917</sup>: Larrauritik **Bakioko Basigora** bidea egin zan, baita **Bakioko Basigo** barreneko bide nagusia izeneko (**Alegria** izeneko etxetik **Urzabal** izeneko alderdiginokoa). (*T-Carreteras y Caminos (carp. 156 y 157) - Camino de Larrauri a Baquío 1888-1917* - BFAA)

uriko kontribuzinoa batuteko kontuan euki ebezan auzoak, oraindik inoarren, *Urquizaurrealde*, *Elejalde* eta *Goitisoloalde* izan ziran, leen esan dogun lez, uriko etxeak iru auzootan agertuz, **Bakioko Basigo**-ko kontribuzino zerrendan, atan be<sup>9</sup>. Ordurako, Bakio bat eginda egoan eta *San Pelayo* eta *Zubiaur* auzoetako uriguneko etxeak Bermeoko kontribuzino zerrendan agertuko ziran, oraindik inoarren<sup>10</sup>. 1930ean ostera, Bakio biak batuta egozala, eta uriko kontribuzinoa batuteko asmotan, *Goitisolo*, *Elejalde* eta *Urquizaurre* auzoak ezeze, *San Pelayo* eta *Zubiaur* auzoak be kontuan artu ebezan, leenengoz batera. Alan eta guzti be, sei auzootan etxe batzuk baino ez ziran urigunekoak, berrogeita hamarren bat etxe guztira, apur gorabeera. Ez egoan eurentzako deitura berezirik, oraindik inoarren<sup>10</sup>.

1932. urtean, leengo **Bakioko Basigo**ko alderdian uriko kontribuzinoa batuteko kontuan eduki ebezan auzoak, *Urquizaurre*, *Elejalde* eta *Goitisolo* izan ziran, leen esan dogun lez, alderdi orretako uriko etxeak iru auzootan egon ziralako<sup>11</sup>. Baegoan, bada, alderdi orretan urigunea bide nagusiaren inguruan aspaldian sortuta.

Ez zan igaroko urte asko, urigune orreri izena imini arte. Eta alantxe agertu zan 1935eko agirietan<sup>12</sup>, auzo bat geituz, seitik zazpira, erriko auzoen izenak *Arzalde*, *Basigo*, *Elejalde*, *Goitisoloalde*, *San Pelayo*, *Urquizaurre* eta *Zubiaur* ziralako. Auzo barri ori agertu arren, *Elejalde* auzoak ziraun bizirik.

Azkenengo 600 urteko istorian, bada, leenengoz agertu zan **Basigo** izeneko auzoa auzotzat artuta, **auzo barria**, bide nagusiaren alboetan egozan uriguneko etxeak egiten eban auzo antzeko barri ori izentetako. Edo beste era batera esanda, **Goitisoloalde**, **Elejalde** eta **Urkitzaurrealde** auzoai kendutako etxe eta lurraz egiten eban **Basigo** izeneko auzo barria. Ez da aaztu bear, 1927.10.04ra arte **Basigo** edota **Bakioko Basigo** izena udalerria izentetako erabili zana antxina-antxinatik.

Onetan guztionetan, *San Pelayo* eta *Zubiaur* auzoetako uriguneko etxeak kontuan artu barik.

1937an frankistak errian sartu eta auzoen aldakuntzeari eutsi ezeze, jokerea indartu be egin eban. Erriko auzoak ziran, bada, frankisten menpeko administrazioan: *Elejalde*, *Goitisolo*, *San Pelayo*, *Urquizaurre*, *Zubiaur*, *Arzalde* eta *Basigo de Baquio*<sup>13</sup>. *Baquio de*

*Basigo* izeneko erriko auzodi barri ori, bada, **Alegria** izeneko etxetik **Urzabal** lekuginoko bide nagusiaren albo bietan egozan etxeak (urbanoak) egiten eban auzo edo urigune alderdia zan<sup>14</sup>, dakigun lez. Barrian, 1950. urteko agirietan dagozan auzoak: *Basigo*, *Arzalde*, *Elejalde*, *Goitisolo*, *San Pelayo*, *Zubiaur* eta *Urquizaurre*. Eta orduko agirietan agertu ziran argi eta garbi *Basigo* izeneko auzoan egozan etxeak, danak urigunekoak eta uriguneko guztiak, eta, antza danez, **Zubiaurrealde** eta **San Pelaio** auzoai jagokenez, bertako uriguneko etxeak ez ebezan *Baquio de Basigo* izeneko auzodi barri orretan sartu, beintzat: *Alegria* - *Iberbide* - *Aurrecoeche* - *Longaray* (**Artagan**) - *Vista-Alegre* - *Quintanaeche* - *chalet* (**Villa Concha**) - *Quinta-Torre* - *Casino* (**Aranbel**) - *Caminero* (**Ormatzabarri**) - *Aniceto Uriarte* - *Orue-zabala* - *Ibarrondo* - *Ayuntamiento* - *Ibarra* (**Ibarrabekoa**) - *zapateria* (**Miraflores**) - *chalet* *Alcorta* (**Felieta**) - *casa jardinero Alcorta* - *chalet* *Barturen* (**Soloburu**) - *Villa María* (*chalet* *Garay*) - *Iber-eche* - *almacén/garaje* - *Iber-barrena* (*Anjel Laucirica*) - *Vda. San Juan* (**Etzeguren**) - *Errotabarri* - *almacén/garaje* - *Iber-garay* - *Ibai-ondo* - *Rosarioena* - *Villa Justina* - *chalet* *Ugalde* (**Villa Cruz**) - *chalet* *Gamboa* - *Zubiondo* - *Olascoeche* (**Kontxaondo**) - *Bistalay* - *E. Garay* (**Villa Clotilde**) - *chalet* *Olascoaga* - *Bella-Vista* - *chalet* *Aranzadi*<sup>15</sup>.

Beste alderdi batetik, 1956tik 1962ko aldi atatik aurrera asi ziran erabilten *Venta* edo *La Venta* izena, areatza ondoko exte moltsok egiten eban alderdia izentetako<sup>16</sup>, **Elejalde** dalako auzoaren izena erabilteari itzi barik. 1969.08.11an, ostera, Bizkaiko *Delegación Provincial de Estadística* dalako erakundeak Bakioko udalari

(5) **1928.05.18:** Aniceto Uriarte Zubillaga jaunak *Elejalde* auzoko *Avenida de Alfonso XIII* izeneko kalean etxe barri bat eregiteko baimena eskatu eban. (0009/001-Bakio - *Libro de actas municipales 1927-1931* - BFAA)

(9) **1929:** Uriko kontribuzinoa batuteko kontuan euki ebezan auzoak: *Urquizaurrealde*, *Elejalde* eta *Goitisoloalde* izan ziran, uriko etxeak iru auzootan agertuz, **Bakioko Basigo**ko kontribuzino zerrendan, atan be. Ordurako, Bakio bat eginda egoan eta *San Pelayo* eta *Zubiaur* auzoetako uriguneko etxeak Bermeoko kontribuzino zerrendan agertuko ziran, oraindik inoarren (0284/006 - *Lista de las contribuciones urbana, rústica e industrial 1929* - BAUA)

(10) **1930:** Bein Bakio biak batu ezkerroan, eta uriko kontribuzinoa batuteko asmotan, *Arzalde*, *Goitisolo*, *Elejalde* eta *Urquizaurre* auzoak ezeze, *San Pelayo* eta *Zubiaur* auzoak be kontuan artu ebezan, leenengoz batera. Alan eta guzti be, sei auzootan etxe batzuk baino ez ziran urigunekoak, berrogeita hamarren bat etxe guztira, apur gorabeera. Ez egoan eurentzako deitura berezirik, oraindik inoarren. (H-00049 - *Contribuciones rústica, urbana e industrial 1930* - BFAA)

**1930.04.03:** Erria auzootan banandu eban, *Avenida de Alfonso XIII* izeneko kalea ardatz zala: alderdi batean, *Arzalde*, *Elejalde*, *Goitisolo*, eta *Urquizaurre*, eta bestean, *Zubiaur* eta *San Pelayo* auzoak. (0009/001-Bakio - *Libro de actas municipales 1927-1931* - BFAA)

(11) **1932:** Uriko kontribuzinoa batuteko kontuan euki ebezan auzoak: *Urquizaurre*, *Elejalde* eta *Goitisolo* baino ez, egon be, uriko etxeak iru auzootan egozan-eta. (0080/002 - *Lista cobratoria de contribuciones industrial y rústica 1932* - BAUA)

(12) **1935:** Erriko auzoen izenak: *Arzalde*, *Basigo*, *Elejalde*, *Goitisoloalde*, *San Pelayo*, *Urquizaurre* eta *Zubiaur*. Leenengoz agertu zan, bada, *Basigo* izeneko auzo barria. (0001/006 - *Padrón municipal completo 1935* - BAUA)

(13) **1937:** Frankistak errian sartu eta auzoen aldakuntzeari eutsi ezeze, jokerea indartu be egin eban, auzo bat geiago egin, au da, bide nagusiko etxe moltsok egiten ebena: *Baquio de Baquio*. Erriko auzoak ziran, bada: *Elejalde*, *Goitisolo*, *San Pelayo*, *Urquizaurre*, *Zubiaur*, *Arzalde* eta *Basigo de Baquio*. (0001/004 - *Atlas de padrón municipal 1937* - BAUA)

**1938:** Erriko auzoak ziran: *Elejalde*, *Goitisoloalde*, *San Pelayo*, *Urquizaurre*, *Zubiaur*, *Arzalde* eta *Basigo*. (0001/005 - *Bajas de padrón municipal 193* - BAUA)

**1940-1961:** Erriko auzoak eta euren izen ofizialak onexek izan ziran: *Zubiaur*, *San Pelayo*, *Elejalde*, *Urquizaurre*, *Arzalde* eta *Goitisolo*. (0068/016 - *Recuentos generales de ganadería 1940-1961* - BAUA)

(14) **1942:** *Basigo* izena erriko auzo, edo obeto esateko, erriko alderdi jakin bat izentetako erabilten eban. Erriko alderdi ori, **Alegria** izeneko etxetik **Urzabal** lekuginoko bide nagusiaren albo bietan egozan etxeak (urbanoak) egiten eban auzo edo alderdia zan. (0074/030 - *Padrón municipal de habitantes 1942* - BAUA)

**1944:** Orduan egozan auzoak: *Elejalde*, *Zubiaur*, *San Pelayo*, *Urquizaurre*, *Goitisolo* eta *Arzalde*. (0291/004 - *Declaraciones para su inclusión en el padrón de la contribución rústica 1944* - BAUA)

**1946:** Bakioko alderdiak edo auzodiak orduan onexek ziran: *Basigo de Baquio*, *Arzalde*, *Goitisoloalde*, *Elejalde*, *Urquizaurrealde*, *San Pelayo* eta *Zubiaur*. (0046/001 - *Libro de actas de sesiones del pleno municipal 1944-1949* - BAUA)

**1949:** Urte atan egozan auzoak eta euren izenak: *Zubiaur*, *Goitisolo*, *Elejalde*, *Arzalde*, *Basigo*, *Urquizaurre* eta *San Pelayo*. (0075/004 - *Altas y bajas de la rectificación del padrón 1948* - BAUA)

(15) **1950-1953:** Sasoi atan egozan auzoak: *Basigo*, *Arzalde*, *Elejalde*, *Goitisolo*, *San Pelayo*, *Zubiaur* eta *Urquizaurre*. 1950. urteko agirietan agertu ziran *Basigo* izeneko auzoan egozan etxeak, danak urikoak eta uriko guztiak, eta, antza danez, **Zubiaurrealden** eta **San Pelaio** auzoai jagokenez, bertako uriguneko etxeak ez ebezan *Baquio de Basigo* izeneko auzodi barri orretan sartu, beintzat: *Alegria* - *Iberbide* - *Aurrecoeche* - *Longaray* (**Artagan**) - *Vista-Alegre* - *Quintanaeche* - *chalet* (**Villa Concha**) - *Quinta-Torre* - *Casino* (**Aranbel**) - *Caminero* (**Ormatzabarri**) - *Aniceto Uriarte* - *Orue-zabala* - *Ibarrondo* - *Ayuntamiento* - *Ibarra* (**Ibarrabekoa**) - *zapateria* (**Miraflores**) - *chalet* *Alcorta* (**Felieta**) - *casa jardinero Alcorta* - *chalet* *Barturen* (**Soloburu**) - *Villa María* (*chalet* *Garay*) - *Iber-eche* - *almacén/garaje* - *Iber-barrena* (*Anjel Laucirica*) - *Vda. San Juan* (**Etzeguren**) - *Errotabarri* - *almacén/garaje* - *Iber-garay* - *Ibai-ondo* - *Rosarioena* - *Villa Justina* - *chalet* *Ugalde* (**Villa Cruz**) - *chalet* *Gamboa* - *Zubiondo* - *Olascoeche* (**Kontxaondo**) - *Bistalay* - *E. Garay* (**Villa Clotilde**) - *chalet* *Olascoaga* - *Bella-Vista* - *chalet* *Aranzadi*. Esan bear, *Basigo* auzo barri ori **Goitisoloalde**, **Elejalde** eta **Urkitzaurrealde** auzoai kendutako lur eta etxeak sortu ebela, erriko urigunekoak, atan be. (0139/003 - *Revisión del nomenclator 1950* - BAUA)

**1951:** Urte atan egozan auzoak eta euren izenak: *Zubiaur*, *Goitisolo*, *Elejalde*, *Arzalde*, *Basigo*, *Urquizaurre* eta *San Pelayo*. (0134/005 - *Altas y bajas de la rectificación del padrón 1949* - BAUA)

**1952:** Urte atan egozan auzoak eta euren izenak: *Zubiaur*, *Goitisolo*, *Elejalde*, *Arzalde*, *Basigo*, *Urquizaurre* eta *San Pelayo*. (0134/007 - *Altas y bajas de la rectificación del padrón 1952* - BAUA)

**1953:** Urte atan egozan auzoak eta euren izenak: *Zubiaur*, *Goitisolo*, *Elejalde*, *Arzalde*, *Basigo*, *Urquizaurre* eta *San Pelayo*. (0134/008 - *Altas y bajas de la rectificación del padrón 1953* - BAUA)

(16) **1956-1962:** Aldi atan asi ziran erabilten *Venta* edo *La Venta* izena, areatza ondoko exte moltsok egiten eban alderdia izentetako. (0088/001 - *Conciertos para exacción de impuestos 1956-1961* - BAUA)

**1966:** Urte atan agertu ziran auzoak: *Arzalde*, *Elejalde*, *Goitisolo*, *San Pelayo*, *Zubiaur* eta *Urquizaurre*. (0085/002 - *Padrones del arbitrio municipal sobre riqueza rústica 1955-1966* - BAUA)

**1967:** Urte atan egozan auzoak: *Arzalde*, *Elejalde*, *Goitisolo*, *Zubiaur*, *Basigo*, *San Pelayo* eta *Urquizaurre*. (J-02154/006 - *Rectificación del censo electoral 1967* - BFAA)

urrengo proposamena egin eutson: erria auzo bitan bananduteko, au da, batean, erreka nagusiaren ezker aldean, *Basigo de Baquio* izeneko auzo andi barria egongo zala, beronen barruan leengo *Arzalde*, *Elejalde*, *Goitisol* eta *Urquiza* auzoak egongo ziralara, azkenengo auzo eta izen oneek desagertu eraginez; bestean, erreka nagusiaren eskuinaldean, *Zubiaur-San Pelayo* izeneko auzo bakarra egongo zala, auzo biak bat eginda eta izen bakarragaz. Udalak ago batez onartu eban proposamen ori<sup>17</sup>. **Elejalde** izenak, bada, erabagi aren ondorioz, desagertu bear eban, baina, erreka aldean, ostera, ordurik, bein eta barriaren agertuten izan da makina bat agiritan kendutako beste auzoen izenak batera<sup>18-19-20</sup>.

Udal demokratikoak asi eta urte batzuk garrenean, 1979.11.27an, orduan egozan auzoak eta euren izenak baieztetea onartu eban, udalaren esanetan: “jatorri historikora bihurtuz”, onek, ostera, orain arte ikusi dogunez, ez eukan ezelango oinarri historikorik. Baina, *Benta-alde* izeneko auzo barria indartu gura izan eban, azken au, udalaren berbetan “etxebizitzarik geienak bertan dagozako eta antxina-antxinatik olan esaten izan jakolako”, esandako azken onek be inongo oinarri zientifikorik ez eukala. Erabagi barri au dokumentau egin eban, antza, plano eta guzti. Alan bada, auzoak izango ziran aurrerantz: *Arzalde*, *Benta-alde*, **Elejalde**, *Goitisol* eta *Urquiza*, *San Pelaio-alde*, *Urkizaurralde*, *Zubiaur-alde*<sup>21</sup>. *Basigo de Baquio* auzoa, unekada baten beintzat, desagertu zan bizitza administratibotik. Azpimarratu bearrekoa da, izena euskeraz-edo ofizialdu gurean, egindako izkuntza naaste-borrastea, **Artzalde** eta **Urkizaurralde** idatzi bearrean, *Arzalde* eta *Urkizaurralde* idazkera sasi-euskalduna erabili eban. Euskera arloan egindako oker galanta! Urtebete garrenean, barriz, 1980.07.10ean, atan be, erriko izenari **Eleizatea** (“*Anteiglesia*”) deiturea kendu eta **Bakio** edo *Basigo de Bakio* izena uts-utsean izteko proposau eban EEko Barquin zinegotzi jaunak. Proposamen ori atzera bota eban beste zinegotziak. Baina, erriko izena *Baquio* “*qu*”-gaz idatzi bearrean, **Bakio** izena “*k*”-gaz idaztea onartu eban. Baita argi be itzi eban, *Basigo de Bakio* dalakoa erriko alderdi edo zati bat baino ez

zala izango, eta **Basigo** izenak **Eleizalde** auzoaren izena ordezkatu ebala be onartu eban<sup>22</sup>. 1979.11.27an artutako erabagia eta 1981.03.16ko dekretuaren arabera, **Eleizalde** auzoaren izena *Basigo de Bakio* izenagaz aldatutea eta generako auzoen izenak beste era batera idaztea onartu eban. Emoia, gaur arte indarrean dagoana, atan be: *Arzalde*, *Benta-alde*, *Basigo de Bakio*, *Goitizoloalde*, *San Pelaio-alde*, *Urkizaurralde* eta *Zubiaur-alde*<sup>23</sup>. Esan lez, euskeraz izenak idatzi eta ofizialdu gurean, Erriak darabilen agozkoa be kontuan artu barik, egindako oker galantari eutsi eutsoen, okerra arean aundiago eginez (*Goitizoloalde*). 1981.03.25ean, bada, **Eleizalde** dalako auzoaren izena aldatu eta aren ordezkari *Basigo de Bakio* izena aurrerantz erabiliko zala adierazoten eban ebatzia birretsi eban<sup>24</sup>. Urte orretan, bada, **Eleizalde** izeneko toponimoa desagertu zan erriko bizitza administratiboan, erritarren agoetan eta gomutapen historikoan, gaur arte, parra-parra eta bizirik ibili arren.

## ITURRI DOKUMENTALAK ETA ERREFERETZIAK

Bear au egiteko bi izan dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegia (**BFAA**)
- Bakioko Udala Agiritegia (**BAUA**)

## GEIGARRIA

Bizkaierazko toponimia dauken beste erri batzuetan zer dagoan labor ona ekarte jakingarri izango dalakoa egin da geigarri au. Baita proposautako **Elejalde** toponimoaren euskerazko idazkerarik egokiena zein izango litzaken eta ori aukeratuteko erabili dan oinarri linguistikoa be.

1.– 1641, 1704, 1745, 1796 urteetako fogerazinoetan urrengo zeaztasunak agertu ziran (artearen beste iturri batzuetakoak be bada-goz):

**Elejalde** (Elejalde) - **Eleizalde** auzo toponimoa urrengo errietan, gitxienez, gorde dabe: Amoroto, Arakaldo, Arrankudiaga, Arrasate, Arratzu, Arrigorriaga, Arteaga, Atxondo, Aulesti, Bakio, Barakaldo, Barrika, Basauri, Bedaroa, Bedia, Berango, Berriatua, Derio, Deustua, Dima, Ea, Elorrio, Erandio, Ereño, Errigoiti, Fika, Forua, Fruiz, Galdakao, Gamiz, Gatika, Gautegiz, Gernika, Getxo, Gizaburuaga, Gordexola, Gorliz, Gorozika, Ibarrangelu, Ibarruri, Igorre, Ipazter, Izurtza, Jatabe, Kortezubi, Larrauri, Larrabetzu, Laukariz, Laukiz, Leioa, Lemoa, Mendata, Muxika, Nabarriz, Natxitua, Olabarri, Urduña, Sopela, Urduliz, Zamudio, Zaratama, Zeanuri, Zenarrutza, Zollo, Zornotza.

2.– Orren guztiorren agergerri garbiak doguz, bada, Mendebaldeko toponimia zein antroponimia. Zaarrak izateaz ganera, zeatzak be badira. Kasu onetan, euskeraz, oi dan lez, antroponimia toponimiatik artuta dagoana jakinda eta txistukari frikariaren Mendebaldeko bustidurea kontuan artuta, ondoko emoia eukiko dogu: **Vj + z Æ V + x (eleizea Æ elexea/eleixia/eleixie)**.

(17) **1969.08.11:** Bizkaiko *Delegación Provincial de Estadística* dalako erakundeak Bakioko udalari urrengo proposamena egin eutson: erria auzo bitan bananduteko, au da, batean, eta erreka nagusiaren ezker aldean, *Basigo de Baquio* izeneko auzo barria egongo zala, beronen barruan leengo *Arzalde*, **Elejalde**, *Goitisol* eta *Urquiza* auzoak egongo ziralara, azkenengo auzo eta izen oneek desagertuz; bestean, erreka nagusiaren eskuinaldean, *Zubiaur-San Pelayo* izeneko auzo bakarra egongo zala, auzo bitatik bat eginda eta izen bakarragaz. Udalak ago batez onartu eban proposamen ori. (0126/002 - *Expedientes de las sesiones del pleno municipal 1969* - BAUA)

**1969.08.11:** Estepona errekearen ezkerreko alderdian dago *Basigo de Baquio* izeneko udal izakundea eta bera eratuko daben alderdiak onekex dira: *Arzalde*, *Goitisol*, **Elejalde** eta *Urquiza*, auzo eta izenak desagertuz. Errekearen eskuinaldean: *Zubiaur* eta *San Pelayo* auzoak egozan, *Zubiaur-San Pelayo* izeneko auzoa egingo dabenak. (0048/002 - *Libro de actas de sesiones del pleno municipal 1969-1978* - BAUA)

(18) **1969:** Urte orretan egozan auzoak eta euren izenak: **Elejalde**, *Arzalde*, *Urquiza*, *Basigo*, *San Pelayo* eta *Zubiaur*. (0139/010 - *Libro diario de ingresos 1969* - BAUA)

(19) **1970:** Urte orretan egozan auzoak eta euren izenak: *Arzalde*, *Basigo*, **Elejalde**, *Goitisol*, *Urquiza*, *San Pelayo* eta *Zubiaur*. (0139/002 - *Censo de población y vivienda 1970* - BAUA)

(20) **1979:** Leengo **Elejalde**, *Arzalde*, *Urquiza* eta *Goitisol* auzoak beste baten azpian lotu ziran, eta ori *Basigo* izeneko auzoa izan zan. (0005/002 - *Presupuesto de gastos e ingresos 1979* - BAUA)

(21) **1979.11.27:** Udal demokratikoak indarrean dagozala, errian egozan auzoak baieztatzea onartu eban, “jatorri historikora bihurtuz”. Baina, *Benta alde* izeneko auzo barria sortu eban, azken au, “etxebizitzarik geienak bertan egozalako eta antxina-antxinatik olan esaten izan jakolako”. Dokumentau egin eban, antza, plano eta guzti. Alan bada, auzoak: *Arzalde*, *Benta-alde*, **Eleizalde**, *Goitisol* eta *San Pelaio-alde*, *Urkizaurralde*, *Zubiaur-alde*. (0640/001 - *Libro de actas de sesiones del pleno municipal 1978-1981* - BAUA)

(22) **1980.07.10:** Erriko izenari **Eleizatea** (“*Anteiglesia*”) deiturea kendu eta **Bakio** edo *Basigo de Bakio* izena uts-utsean izteko proposau (EEko Barquin jaunak) eban. Proposamen ori atzera bota eban. Baina, erriko izena *Baquio* “*qu*”-gaz idatzi bearrean, **Bakio** izena “*k*”-gaz idaztea onartu eban. Baita argi be itzi eban, *Basigo de Bakio* dalakoa erriko alderdi edo zati bat baino ez zana. Beste alderdi batetik, **Basigo** izenak **Eleizalde** auzoaren izena ordezkatu ebala be onartu eban. (0640/001 - *Libro de actas de sesiones del pleno municipal 1978-1981* - BAUA)

(23) **1981.03.16:** 1979.11.27an artutako erabagia eta 1981.03.16ko dekretuaren arabera, **Eleizalde** auzoaren izena *Basigo de Bakio* izenagaz aldatzea eta generako auzoen izenak beste era batera idaztea onartu eban. Emoia: *Arzalde*, *Benta-alde*, *Basigo de Bakio*, *Goitizoloalde*, *San Pelaio-alde*, *Urkizaurralde* eta *Zubiaur-alde*. (0733/012 - *Expediente para el establecimiento de los nombres de los barrios del municipio 1981* - BAUA)

(24) **1981.03.25:** **Eleizalde** dalako auzoaren izena aldatu eta aren ordezkari *Basigo de Bakio* izena aurrerantz erabiliko zala adierazoten eban ebatzia birretsi eban. Alan bada auzoen izenak, gaur arte, olan lotu ziran: *Arzalde*, *Benta-Alde*, *Basigo de Bakio*, *Goitizoloalde*, *San Pelaio-Alde*, *Urkizaurralde*, *Zubiaur-Alde*. (0640/001 - *Libro de actas de sesiones del pleno municipal 1978-1981* - BAUA)



Alan bada, **Elخالde** idaztea ontzat artuteko proposauko da berton, Bakioko oinarri linguistiko kontuan artuta eta arakaturako fondo dokumentalean alantxe agertuten dalako leenengo-leenengorik eta, ganera, eurrez.

*Elخالga* (Elejaga) - **Eleizaga**  
*Elخالbarri/a* (Elejabarri/a) - **Eleizabarri/a**  
*Elخالbarrieta* (Elejabarrieta) - **Eleizabarrieta**  
*Elخالarea* (Elejarea) - **Eleizarea**  
*Elخالaburu* (Elejaburu) - **Eleizaburu**  
*Elخالazar* (Elejazar) - **Eleizazar**  
*Elخالpide* (Elespide) - **Eleizbide**  
*Elخالeta* (Elejeta) - **Eleizeta**  
*Elخالpezar* (Elespezar) - **Eleizpezar**  
*Elخالdekoa* (Elejaldekoa) - **Eleizaldekoa**  
*Elخالbearroa* (Elejavearroa) - **Eleizabearroa**  
*Elخالkaraiburu* (Elesgarayburu) - **Eleizgaraiburu**  
*Goikoelelea* (Goicoelejea) - **Goikoeleiza**  
*Goikoelelalde* (Goicoelejalde) - **Goikoeleizalde**  
*Elخالrri/a* (Elejarri/a) - **Eleizarri/a**  
*Elخالrraga* (Elejarraga) - **Eleizarraga**  
*Elخالtxikerra* (Elechiquerra) - **Eleiztxikerra**  
*Elخالaste* (Elejaoste) - **Eleizaoste**  
*Elخالa* (Eleja) - **Eleiza**  
*Elخالbaso* (Elesbaso) - **Eleizbaso**  
*Elخالrabide* (Elejarabide) - **Eleizarabide**  
*Elخالeleta* (Eleceleta) - **Eleizeleta**  
*Elخالgoitia* (Elejagoitia) - **Eleizagoitia**

*Elخالtze/Elخالtzea* (auzoa: Lekeitio; soloa: Sukarrieta), *Elخالxeta* (lekua: Getxo, Larrabetzu), *Elخالxoste* (lekua: Larrabetzu), *Elخالzabarri* (eleizea: Elantxobe), *Elخالzalde* (kalea: Sopela; etxea: Mañu), *Elخالzibide* (auzoa: Sukarrieta; bidea/kalea: Berango, Sopela, Sukarrieta; etxea: Bakio), *Elخالzkale* (kalea: Aulesti), *Elخالzondo* (auzoa: Orozko, Zaldibar; etxea: Morga, Zeberio; soloa: Meñaka), *Elخالzpe* (etxea: Bakio, Getxo; soloa: Bakio), *Elخالa* (etxea: Mungia), *Elخالabarri* (etxea: Abando; lekua: Bilbo), *Elخالabe* (etxea: Arrasate), *Elخالabearroa* (lekua: Arrasate), *Elخالabeitia* (auzoa: Artea; etxea: Areatza, Artea), *Elخالabide/Elخالbide* (sola: Bakio, Bermeo), *Elخالaburu* (auzoa: Arakaldo, Arrankudiaga; etxea: Axpe-Martzana), *Elخالaga* (auzoa: Arrigorriaga, Larrabetzu, Zeanuri; etxea: Zornotza), *Elخالaga-andikoa* (etxea: Atxondo, Larrabetzu), *Elخالagabekoa* (etxea: Larrabetzu), *Elخالalde* (enparantzea: Zamudio; etxea: Arakaldo, Arrankudiaga, Arrasate, Atxondo, Axpe, Bakio, Barakaldo, Barrika, Basauri, Bedia, Berriatu, Derio, Deustu, Dima, Eibar, Elorrio, Ermua, Errigoiti, Etxebarri, Forua, Gerrikaitz, Getxo, Ibarrangelua, Ipazter, Lemoiz, Lumo, Mallabia, Markaia, Mundaka, Mungia, Nabarriz, Natxitua, Zaldu, Zamudio, Zeberio, Zornotza; jauregia: Deustu; kalea: Barakaldo, Igorre; soloa: Bermeo, Dima, Leioa), *Elخالaldebekoa* (etxea: Lemoiz), *Elخالalde-etxebarria* (etxea: Derio), *Elخالaldekoa* (etxea: Arrasate), *Elخالaldetxu* (etxea: Berango, Berriatu), *Elخالalde-Zeeta* (lekua:

3.– Beartxu au amaituteko, **Elخالza** berbea barruan dauken beste toponimo eta antroponimo batzuk, adibide eran, nabarmendu gura doguz segiduko onetan:

*Elخالbeiti/a* (Elejabeiti/a) - **Eleizabeiti/a**  
*Elخالkarai* (Elesgaray) - **Eleizgarai**  
*Elخالpe* (Elespe) - **Eleizpe**  
*Elخالrriaga* (Elejarriaga) - **Eleizarriaga**  
*Elخالaondo* (Elejaondo) - **Eleizaondo**  
*Elخالegi* (Elejegui) - **Eleizegi**  
*Elخالaurre* (Elejaurre) - **Eleizaurre**  
*Elخالabe* (Elejave) - **Eleizabe**  
*Elخالondo* (Elejondo) - **Eleizondo**  
*Elخالalde* (Elejalde) - **Eleizalde**  
*Elخالpuru/a* (Elespuru/a) - **Eleizburu/a**  
*Elخالoste* (Elejoste) - **Eleizoste**  
*Elخالatxu/a* (Elejachu/a) - **Eleizatxu/a**  
*Elخالarra* (Elezarra) - **Eleizarra**  
*Elخالpeiti/a* (Elespeiti/a) - **Eleizbeiti/a**  
*Elخالiri* (Eliciri) - **Eleiziri**  
*Elخالaldetxu* (*Elخالaldechu*) - **Eleizaldetxu**  
*Elخالeaga* (Elejeaga) - **Eleizeaga**  
*Elخالzpi* (Elejazpi) - **Eleizazpi**  
*Elخالpitarte* (Elesbitarte) - **Eleizbitarte**  
*Elخالrriaga* (Elejarriaga) - **Eleizarriaga**  
*Elخالandre* (Elejandre) - **Eleizandra**  
*Elخالate* (Elejate) - **Eleizate ...**

Ereño), *Elخالrabide* (etxea: Mundaka), *Elخالrriaga* (etxea: Mañaria, Zeberio), *Elخالatxu* (etxea: Barrika, Urduliz; mendia: Gorozika), *Elخالatxua* (etxea: Muxika), *Elخالaurre/Elخالaurra* (basoa: Getxo; etxea: Erandio; lekua: Araba), *Elخالazpi* (etxea: Erandio), *Elخالbaso* (basoa: Zeanuri; etxea: Zeberio), *Elخالeaga* (etxea: Atxondo), *Elخالeagaemetikoa* (etxea: Atxondo), *Elخالegi* (etxea: Gorliz), *Elخالeta* (etxea: Axpe), *Elخالgarai* (etxea: Arrasate; lekua: Arrasate), *Elخالgaraiburu* (lekua: Arrasate), *Elخالondo* (auzoa: Etxano, Zeanuri; etxea: Arrigorriaga; kalea: Amurrio; soloa: Bermeo), *Elخالoste* (auzoa: Ipazter, Larrabetzu; etxea: Ermua, Larrabetzu, Ubide; kalea: Zaldibar; lekua: Arrasate, Buradon Gatzaga (Ar); soloa: Bermeo), *Elخالpe* (etxea: Dima, Nabarriz, Zaldibar; soloa: Bakio), *Elخالpeiti* (etxea: Mendata), *Elخالpeitia* (etxea: Murueta), *Elخالpezar* (lekua: Arrasate), *Elخالpitarte* (etxea: Mañaria), *Elخالpuru* (etxea: Amoroto, Bakio (2), Barakaldo, Berriatu, Emerando, Ibarrangelua, Mallabia, Markina, Mungia; kalea: Barakaldo; lekua: Eltziego(Ar)), *Elخالpuruandikoa* (etxea: Berriatu), *Elخالpuruazpikoa* (etxea: Berriatu), *Elخالpuruerdikoa* (etxea: Berriatu), *Elخالzatsu* (auzoa: Dima), *Goikoelelalde* (lekua: Larrabetzu), *Goikoelelea* (auzoa: Larrabetzu), ...

Iniaki MARTIARTU  
 2006ko martian

## ANDRA MARI DANTZA-TALDEA

Kurtzeko Plazan Dr. Gandasegi eskolearen arkupeetako mailletan, 1943n. urte-inguruan, 37'ko neskatilla-taldea, irlandera jantzita, dantzan egiteko prest egozan. Euren artetik dakiguzenen izenak jarriko doguz:

Bakarreko argazian dagon neskatotxua Maite Urrutikoetxea Elortza dogu (FOTO 4), irlandera erropeagaz apain jantzita eta bere lagunen antzera,



narruzko abarka ta ardi-lanazko galzterdiakaz, baita buruko zapia bere puntatik, txoritxu batzuk lez dotore jarrita.

1943n urteko dantza-taldea:

1943n. urte inguruko neska-taldea, irlandera, A,B,C,D lau lerrotan ipiñi ezker, eta gure ezker-aldetik euron ezker-alderantz kontaktzen asi, lenengo neskeagandik asita, oneixek dira:

A-A Mari Larrea, Milagros Ibarro, Lola Otxoa, Txarito Otxoa, Tere Etxezarraga, Julita (kooperatibakoa) Mari Krutz Orozko, Bene Uranga,... Ogara,..... Barrenetxea.

B-B lerroko Neska-Zerrendea gure ezker-aldetik asita, Anita Etxano,.....Maria Jesus (Iñaki Madina'ren

alargiuna), banderaduna Silbestre Barrena, Jesus Maza, Felipita Goiri, ....Orozko, Maria Luis Urbarri.

C-C lerrokoak, gure ezker-aldetik asita, Maria Luisa Fernandez, Jesusa Larrea, Felisa Goiri, Begoña Fernandez, Kontxita Barrenetxea, Ramonita Petralanda eta beronen atzeko aldean Irune Madariaga.

Laugarren lerrokoak, gure ezker-aldetik asita: D-D letraren artekoak: Margarita Mugarra, Margarita Etxano, Mari Tere Loroño, Mari Tere (Karmen Intxausti'ren llo-bea).....Urbarri (Maria Luisa'ren aiztea), Loli...(Karmen Intxausti'ren llo-bea), Maite Urrutikoetxea Elortza, Mari Tere Zabala, Sole Abona. Karmen Intxausti urte askotan, geropago, askoren dantza-irakasle izan zan. Maite Urrutikoetxea'ri nire eskerrik beroenak, argazko bi oneik eta izen zerrendea emon daustazalako.

Txarito Otxoa, Loli Rodrigez eta Mila Ibarretxe'k goiko zerrenda'ko iru edo lau izen emon eustezan, baiña beko zerrendako geienak Karmele Ibarra'k emon eustazan: De Juana osagillearen Loli Rodrigez Karmele, Ibarra, Begoña Ibarra, Karmen Santos, Txarito.... Txarito, Grabe jaunaren alabea, Resti praktikantearen alabea, Maria Jesus Sagarminaga,

Karmen Santos. Luisita Gandasegi,....Olea, Begoña Tutor, Nere Ellakuria, Ana Maria Ellakuria, Mila Iba-

retxe, Tere Garabieta, Eli Artetxe, Karmen Intxausti, (Irakasle-modura ibiltzen zan), Jesusa..., Feli Riko jaunaren anderea.

1943n. urtean goi-aldian esaten dan lez, lau lerrotan ifiñita edo ifiñi ezker, AA, BB, CC, DD zerrenda orreitan geure ezkerretik euren ezkerredera edo euren eskoi-aldetik euren ezkerredera kontaktzen asi ezker, lau zerrendetako neske izenak eta irudiak ondo argi ta garbi agertzen da neska bat itzaren irudi eta izena.

Ez dakit 1943n. urtetik asita, 1956n. urtera arte edo geroagora arte, sekzion femenina'ko dantzak Galdakao'ko udalak babestuta, udalaren antolamentuz izaten ziran ala ez.

Mila Ibarretxe dantzaria eta bergaz ebillen taldea, Peña Santa Krutz ortatik, dantzarako aro ta guzti artu eta kamiño-baztarreko plazaragiño eldu eta dantzaldia egin eben, Karmele'k diñoan lez, Karmen Intxausti'k arku-dantza dantzatzen ebenean, Kurtzeko Batzokian negualdean eta ostean Tximelarreko aldatzean.

Batzutan Zugutzu'n be dantzatzen zan, baita udaletzeko tokian, taberna zarra egoan tokian, eta Dr. Gandasegi eskoletan be dantza-saioak egiten ziran. Urte baten Teatro Buenos-Aires'en be bai eta an be lenengo saria irabazi eben.

**Jose Mariano Barrenetxea'k (+)**



# 1.- PARKATU BAI, AIZTU EZ!

Sarritan entzuten dogu esaldi au: "Nik parkatu bai, baiña aiztu ez!"

Esaldi orrek adierazpen oker bat ba-dauko: "Aiztu ez" diñonak apentza artzeko zain dagoala esan nai dauanean.

Baiña orrelan ez da beti ulertu bear esaldia: "Aiztu ez! Diñonak au esan gura izaten dau sarritan: "Ez dot aitzuko egin daustana, barriro egin ez dagistan" eta ori ondo dago. Edo beste au esan gura izaten dau: "Egin gendun ekintza orrek, ondoren ikaragarriak ekarri ebazan eta ez dogu aiztu bear barriro ondoren orreik ekarri ez dagiskuzan.

Orren antzeko zerbait esan nai dau beste esaldi onek be:" Euren edestia aitzuten daben erriak, edesti ori barriro bizi izatera dagoz beartuak".

36'ko gudaldian jazoriko gauzak gogoratuko doguz urrengo idaz-lanetan eta, gauza oreik edo antzekoak barriro jazo ez dakiguzan, gogratzen doguz.

Orretarako liburu irakurgarri bat irakurten asi gara: "Bidasoa" deritxon Ganboa'tar Jose Maria'ren liburua. Idaz-purua erderaz "Erritarren arteko guda Euzkadi'n"

Liburu onek 136 testigantza dakarz, Joxemiel Barandiaran'ek batuak. Intxausti'tar Manuel'ek artu eban etxean Joxemiel, egoaldera etortetik nez eukalako, erailla izateko arriskuagagitik.

Bein baten Uztaritz'en jan eben biak, 1936n. urtean eta burubide au eskiñi eutson Manuel'ek: "Zergaitik ez doguz batzen erbesteratuta datozen euskaldunen agerpenak? Esan eta egin. Or asi zan Barandiaran agerpen orreik batzen. Orain liburu onetan agertzen diranak. 136'tik 122'k azpian dauke eguna. Urteak 1936-1937. Guztiz 67 dira 1937'koak etra 40 ostera 1938'koak

Guztiak ezin agertu ziango doguz, asko diralako, baiña bai, beintzat, gurenak.

600 000 izan ziran guda aretan illak Orreik isilik geratzen dira betiko. Ori ezin aiztu izango dogu, ez dogu aiztu bear jazokizun guztiak edestian argi agertu-arte. Ori eskatzen dau benetako baketzeak edo "transiziñoak".

...

Argitu daigun basobaltz onetako zugatz aundiak banan-banan aztertu baiño lenago, zelan dagon edesti-zale batzuren

liburuetan Gernika'ko bonbaketa.

Lenengo Pio Moa'ren eritxia. Au "GRAPO" ren zuzendaria izan zan, gero Franco'ren aldelari sutsua, eta onetan beste oneik izan ebazan lagun: Jose Manuel Martinez Bande, Ricardo de la Cierva, Ramon eta Jesus Salas Lardizabal (biak anaiak eta Franco'ren gudalburuak) eta Vicednte Talon.

Guzti oneik 1970n. urte-inguruan Gernika'ko lerkai edo bonbai garrantzia kentzen ekin eben eta Franco'ri oso-osoa erantzukizuna kentzen eutsoen, alemanak zirala errudun esanez.

Vicdente Talon'en 200 izan zirala Gernika'n illak diño, baiña Pio Moa'k 100 izan zirala esan eban. Eta "bere buruaruari Eusko Jaurlearitza" esaten dautson erakundea iñoz ez zala ori izan diño, eta Mola'k Bizkaia zemaitzeko idatzi eban agiria iñok ez dauala ikusi (baiña agiri ori 1937-04-29 egunean Daili Herald'en dago).

Pio Moa'rentzat Gernika'ren bonbaketa gauza ariña izan zan eta Franco'k agindu bakoia (jakiña dala diño bonbaketa amaitu eta ordubetegarrenean Gernika geiena zutunik agiri zala eta %18 baiño ez zirala etxe erreak).

Kondor lejioa'ren buru zan Von Richthofen ei zan errudun bakarra.

Eta beti aitutzen dan Jesus Salas Larrazabal eta onen azterketa azken-erabagia dala edestian diño.

Orrelan idazten da edestia! Eskerrak edestilari egizaleai!

OLAZAR'tar Martin'ek

## BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\*



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Salla  
Departamento de Cultura

ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

## 4.- ZELAN BIZI DIRAN



Gizakia aste batzutan bizi leiteke jan barik, egaztiak be bardin. Esaterako arrano batek illebete egin leike barau eta oillo batek amar egun... Ba-dagoz txori batzuk ordu gitxitan jan barik bizi leitekezanak.

Egaztiak danerako dabiltz arin: gure biotzak minutuko 70 taupada daukaz, oilloak ostera 312 eta etxe-txoriak 460. Eurentzat 45 graduko beroa gorputzean, bero ona da.

Txoriak sarritan jan bear dau. Eguzkia urteten danetik sartzen danera, jan eta jan dabil. Euren pisua lako bi jaten dabe egunero geienak.

Orregaitik, euren lanik aundiena jatekoa billatzea da, geienak egunean egunekoa billatzen dabe.

### ZOMORRO-JALEAK

Zomorroak asko ugaritzen dira, milloiak arrautzak eginda, eta mundua beteko leukee euren jalieak ez ba'legoz. Ori da izadiaren bidea dendu do ekilibria lortzeko.

Enara edo elaia da orretan bizkorren, zapelaitza be ona da. Okillak bere min luzeagaz (10 zm.) jaten dauz zugatz azaletan gorde diran zomorroak.

### FRUTA-JALEAK

Basa-frutuak jaten dabez lenen, batez be aleak, orretarako piku sendoa ta laburra dauke. Neguan eta udan euren janari egokiak aurkitzen dabez. Gaiñera aurkitzen dabez zomorroak be ez dabez alboratzen.

### ARAGI-JALEAK

Egazti arrapariak dira oneik, baiña ez dabe kalte aundirik egiten. Zapelaitza (alcón) da onein artean ederrenetarikoa: egon luzeak, muztur zorrotza, egitura apaiña, arin egiten ona (goitik beera 200 km.'ko abiadura artzen dau): txoriak arapatzen ditu (usoak, belak, karioak). Anketan arapatzen dauz, ez iñoz pikuan. Gogoratu antzekoa dan gure baserrietako mirua.

Gabaz saguzarra da dabillen bakarra, iñoz gabontzak urrean dirala. Ontz batek urtean 6.000 sagu arapatzen dauz. Irundi egiten dauz eta gero uleak eta azurrak bota. Mesedegilleak dira.

### ARRAIN-JALEAK

Errekea zugatz-artean doa eta biurgune baten agertuko da "martin pescador" edo matxin-arrain txori bulargorria.

Matxi-arrain'ek mundu guztian egiten dau bere lana, beroa dagon lekuetan. Erreka-ondoan dago zain, arraiña agertu-orduko gaiñera joako bala baten antzera eta pikuan artzen dau arraiña. Gero lengo lekura doa. Berak 15 zm. ditu eta jaten dauan arraiña, sarritan, zazpi zm.'koa izan leiteke. Igelak eta zapaburuak be jaten dauz.

Ba-dagoz onein antzeko beste egazti batzuk be urgazatan dabiltzenak: gartza pikuluzea esaterako.

Beste txori arrapari batzuk be aragi-jaleak dira. Esaterako arranoak ankaz arapatzen dau, erpa zorrotzak daukazalako, mirua...

**OLAZAR'tar Martin'ek**

### **3.- MONGOLIA**



Mongolia Asia´ren erdi-aldean dago eta goiko leun-unea, milla ta lareun m. itxasoa baiño gorago.

Barruko Mongolia deritxona gaur Txina´rena da , kanpo-koa, ostera Errusia´rena eta iparraldean da Errusia´gaz mugakide eta egoaldetik Gobi eremua dago.barruko Mongolia´ra arte.

Lurralde onetan gaur diran uriak antxiñatik izan dira sale-roslketa-bideak. Iparraldeko mendietan egurra, narruak, urrea, zidarra burdingorria eta ikatza dagoz ugari. Inguru orretan iru milloi bizi dira eta geienak artzaiñak dira eta artaldeak dabez euren bizibidea.

Artzain onei txinatarrak “Eremu´ko erria” esaten dautsee, lur guztietan ibiltzen diralako ardiak bazkatzeko.

Etxeak oialezko estalpeak baiño ez dira eta ordu-erdi izaten dabe naikoa olako bat egiteko. Antxiña eroan egiten ebezan gurdi-gaiñean.

Narru latzeko eta itxura zorrotzeko jentea dira eta ekaitz-artean bizi izateak gogor biurtu dauz.

Lurraldea leuna ta zabala dan lez, ez dabe bear biderik ibilteko.

Ur gitxi edaten dabe eta otzaren bildurrez euren buruak garbitzen be ez dira larregi alegintzen. Geien artzen daben edaria esneagazko tea da.

Lurraldean mugarik ez dagon lez, bakoitxaren lur-jabetzarik be ez edago. Batek 50 ardi, ogeta bost zaldi eta idi eta amar ganbelu ba´daukoz besterik ez dau bear jabetza lez.

Umeak lan egiten dabe gurasoakaz eta orrelan gertatzen dira bizitza latzerako.

Eroan-ekarrietan egiten dabe lan aundia eta urtero milloika ganbelu ta idi-gurdi ibiltzen dira bideetan.

Jantziak egiten dabezenak andrak dira eta oneik orretarako artzen dabezan gaiak ulea ta narrua izaten dira. Jaietara joateko ondo jazten eta apaintzen dira.

Euren janaria aragia da eta janari au ugari emoten dautsee ardiak, beiak, eta ganbeluak.Beorraren esnea dabe edari. Tea gertatzen trebeak dira: pastillak artu, zapi baten batu, pekorotzez berotu eta bigundu, gero zeatu eta esnetan irakin, gatza bota eta gurin antzeko bat agertzen da eginda.

Baktriana deritxo sorbaldan tontor bi dauzan ganbeluari. Neguan seda-antzeko ulea dauka eta udan ule barik antzean geratzen dira. Batzutan okerrak izaten dira eta olakoai zapi gorri bat ipinten dautsee buruan. Bere ostiko bategaz auto bat itzultzeko besteko indarra dauka eta iñoz zaldizko bateri jarraitu eta arrapatzen dauanean lurrera bota eta zapaldu egiten dau. Eurak bakarrik dira gai Gobi eremua igaroteko.

Edur-zaleak dira eta zaldiak bizi ezin diran lekuetan biziko litzakez. Beste edaririk ez dagoanean, onien esnea da edari ona.

Leiñu batzutan emakumeak buru-gaiñean elefantearen belarri-antzekoak egiten dabez orraziagaz ezkonduak dirala adierazteko. Uleondo apainduaren gaiñean kapelea jazten dabe. Leiñu bakoitxak bere erea dauka ulea orraztuteko. Gazte-gaztetatik ikusten dabe zaldi-gaiñean ibiltzen.

Munduko zaldunik onenak dirala esaten da. Egunean eun eta berrogeta amar km. ibilli leitekez zaldi-gaiñean.

Zelaietan zaldi-taldeak ikusten dira eta bizkorrena euki-ten dau artzaiñak bere etxearen ondoan.

Artzaiñak beste zaldi bat arrapatu nai ba´dau,bere zaldigaiñean joaten da taldera urkizko bost metroko age bategaz eta zaldia menperatu egin bear dau. Iñoz zaldi-gaiñetik jausi eta zaldiaren buztanetik oratuta joaten da zaldia geratu-arte,

Yurt deritxo euren etxeari. Oialezkoa da, kendu-ipiñikoa, biribilla eta gaiñean ke-zuloa dauka. Egurrezko ate ondo landuak be ipinten dautsez.

Berotzeko era bereizi bat dauke: pekorotz legorra burdin-gaiñean ipiñita

Euren tresnak Txina´egindako kutxa latz bat,latoizko tupin bat eta ardi- narruak dira.

Bidez doazenai ostatua eta jana emoteko egin-bearra dauke, baiña bidez doanak, lenengo, etxearen aurretik egin bear dau berba eta zaldi-gaiñean egon bear dau txakurrak oiugiten dauala. Orduan etxeko jaunak etxe-aurrean lotzen dau zaldia eta barrura sartzen dira. Artzain-txakurrak usain egiten dautso etorriari. Gero rape artzen dabe eta arkumea jaten asten dira.

Monastegiak be ba-daukez eta opor-lekuak izaten dira eurentzat. An erlejiñoa-gaiak, ipuiñak, jatordua, jolasak, jantzi apaiñak ugari ikusten dira.

Erromes doazenak zaldi-gaiñean edo idi-gurdian edo eunka km.´ak egin dabezan ganbelu-gurdietan etorten dira monastegira. Kontulariak ipuin zarrak edesten dauz.

Brontze-koloreko mongoliarrak indartsuak, erdi billuzik, burutzik, aundikien baten etxe-aurrean egiten dabez euren burrukak eta irabazten dauana pozez jauzika joaten da etxera.

Irabazleai saria be emoten jako: Seda-apur bat, zidar landuzko katillu bat, samako bitixi bat edo zoi-erre batzuk izaten dira.

Jaietan zaldi-ariñeketak egiten dabez onein buztanak txirikordatuta. Amabi urteko mutikoak izaten dira zaldun eta ibillaldia 25 km.´koa

Kondairak diñoana da, mongoliarrak otso bategandik etorriak dirala.

Lenengo agintari ezaguna Budanstar izan zan. Bederatzi gizaldi geroagokoa da Jenjkis Khan. Onek alkartu ebazan leiñu banatuak

Europa´n tartaroak esaten dautse eta bildurgarriak ziran, Asia guztia,Polonia, Austria ta Ungria menperatu ebezalako. Oitura batek galazo eban beste Europa guztia menperatzea: Oitura zan euren nagusi bat ilten zanean euren etxera biurtu bear ebela iru urteko illetak egiteko. Eta orduan il zan Jenjhis Khan eta euren etxera joan ziran. Baiña ildakoaren loba batek asi eban barrero gudea, Kublai Khan´ek, Txina´ko arresi aundia apurtuta. Azkenean Txina, Indotxina, Korea, Birmania, eta Sumatra menperatu ebezan.. Azkenean ori dana aiztu eta euren errepublika errokoian bizi izan ziran tartaro oneik.

**OLAZAR´tar Martin´ek**

## AMERIKA EZ-EZAGUNA

Ainbat urtetan Venezuela'k lur birjintsu oparoa (neri, zuri, urliari), musutruk eskeñi zigunez, aberriratu giñanetik, ezin aztu degu kolpez oroimin atsegiña biotzean utzi ziguna.

XVI'gn. mendea urrezkoa izan zan zenbait errirrentzat. Bizibide matxinzale-asaldatak jantzi berriz ornitu zuan Europa'ko Edestia. Iñoiz eta iñun ez bezelako dramaz dardaratu zitzaigun gure europar lurralde zarkitua. Eta emen eta onela eratu zan zoriketaren (menturazaleen) eskola. Erregerik, paje, olerkari ta praillerik urre-ikuturen bat gutxienik etzeukana etzan lur aberats oietara inguratuko eta etxera esku utsik itzuliko. Kolon'en antzera *Vespucci*, Kortés, Pizarro, Drake, Legazpi, Urdaneta e.a. gurutzez edo ezpataz epopeiarik miresgarriena ondu ziguten. Konkistak, arrapakiñak, eraiketak, erregeen itzalpean egin ziran. Karibeen edestia (karibe: inditar zangarra, guda-itx, edenez igurtzitako gezi-miztoa bezelakoxea da) itsaorean antzeko aize aldagoiek olatuak sortarazten dituendi biziak bai lirakean, ondartzetan lertarazteko.

Antilletako auen edeskia guda zelai eran ikusi bear da, piraten daduekin jokatzan bait-ziran tradizio ta itxaropena, joku garbia ta zikiña, altxor eta erregeen koroiak. Emen zalapart bizian almirantez graduatzen ziran ingeles mariñelak.

Erriek, gorroto, maitasun eta siniskeriak zeukaten. Itz batez esana: beuren feea. Munduaren mapa XVI'gn. mendean egin zan, zatar, ol eta aizto batzuekin. Iru gauza auek Karibe'ren armarría eratzen zuten. Emengo ikutua danera irixten zan: Lutero ta Kalbino'ren itzaldietara, Loiola'tar Iñaki'rengana, Santa Teresa'ren komentuetara, Torquemada'ren sugarretara. Beraz, suarena, lantzena: Biolentzairén mendea da, lapurrena, igeslariena. Danak zeuzkaten beuren txabolak: dramaturgoak, piratak, korsariak, filibusteruak, bukaneruak eta su-pizleak.

Antziñateo munduaz mintzatzen da. Itzak. Aditz eta sujetorik gabeko esaldi baten puxkak dira. Sujettoa itsasoa da (nai dezuten itsasoa). Eta aditza nabigatzea. Geografi politikua ez bait-zegoan lurrean, legorrean, onek eratzen zituan olatuetan baño. Orduko edeskiak poemak dira, bizitzen asten diran errietan edestia ez bait-da idazten. Kantaz ematen da.

Nola deitu aldi oni? Batzuk bizitzaren *illuntzea* deitzen diote. Naiz ta mistikak goi-mailla ikutu. Abeste aletegiak ustu egiten dira. Izurritea zabaltzen da eta gorpuak eortzeko ez da toki egokirik aurkitzen.

1492'garrenean Kolon Guanahani'ra irixten da (iguanen ugarte). Bertakoak nolanai apaintzen dira: Abere basatien ortz-lepagailuz, ezurrezko pitxiz... Aurak danetik jaten dute. Zaborkeriak ere. Ibai uberketan urrea ta ondarra nastuta datoz. Beira-puxkak urre-

zatzit trukatzan dira. Titikaka'ko erriberetan, goi-goiko odeiak eskurakoi, Tiuanako monolito erraldoiak nork eta nola lantzen dituzten ez dakite hemisferioko beste muturrean dauden maiak, indar aldi berdintsua ba'darabilkite ere beuren piramideak altxatzeko. Kostaldeko lurak emankor eta atoskorak dira. Inguruetan sortzen ari da nekezaritzia. Eta be-bean ugarteetan amua itsasora bota ezkeron naikoa dute bizitzeko. Zuaitzeko igaliak errex pillatzen dituzte eta aixa ere tabakuen ostoa jasoitzeko. Inkak eta aztekak eguztiarekin ika izketatzen dira. Kolon'en ontziak iritxi ziranean, Karibea bat-batera bide guziek guruzbide gertatu ziran.


Italiar izenez zipriztinduta daude edesti ontan lenengoetako orrialdeak Kolon, *Vespucci*, Verrazano. Toscanelli izan zan Kolon'en jakinmiña biziagotu zuana. Medici'en bitartekariak dira. Cadiz'en ardoz, tipulez, iriñez eta bizkotxoaz itsasontziak betetzen zituztenak. Eta garrantzitsuena bezela *kanela*. Eta onela itsasalde basati au, bere palmaz eta inditarrez, iuka jan eta tabakua erretzen zutenak sinisteziñeko altxorren biltegi biutu ziran. Kolon'ek Marko Polo'rekin pentsatzen zuan, paradisua antxe zegoala sinistuta bait zegoan. Dana aundiz bikoiztutako komeria izan zan.

Karibea'ri buruz, nolatan irixten da Europa'ra Mundu berri onen ezagu era? Nork idazten ditu, izkuntza guzitan irakurtzeko moduan mundu berri onen lenengoetako albiste ta kronikak? *Ameriko Vespucci*'k. Américo'ren zortea sinisteziñekoa da. Kilon'en adifiekoa da. Baiñan Kolon zarrez jota dago, arroxko, malko-jario. Vespucci berriz alai bizi da. Ez dio ezerk eltzen. Alegi umoretsuak idaz ditzake, Kolon'ek bere orogariz negarti azaltzen dan bitartean. Américo ez da geldirik egotekoak. Iaioa da idazten. Karibe'ren itsaso ezil-koren pinturak egiten ditu danen pozarako. Emakumeak zaizkio entretenigarrienak. Vespucci eta bere lagunak inditarrekin naasten dira. Batzutan kañoikadaz izutzen ditu eta bestetan ixpillu-zatzit, zirtzilleriz eta jostagailluz jolas-eragiten. Kolon'ek bein bakarrik, bein bai, aurkitzen da zorionean, pozaren gaillurrean: bere eskuz Mundu berriaren lurra ikutu eta bere-bere legiz ikusten duanean. Kolon'ek ezin du bere bururik jaso, gerota naastuago aurkitzen da. Bere bizitzan argi-marra bakar bat dago: 1.492'ko Urrillaren 12. Bere buruan esaera auxe dabilkio: "*Arrano ikuturen bat daukat eta baita olloarena ere*". Marco Polo zeukan buruan. Kolon'ek ez du konkistatzailléen itxurarik: Segika datozkion soldaduen erabakia, kemena. Baiñan urre-eiztarien aintzindaritzia berea du. Ainbeste lur ikusirik ala dio: au ez da dagoaneko geografi utsa, au poema bat da.

... eta mundutxo onek zilipirdika erotzen darrai...

Egaña'tar Gotzon

### 3.- WRIGHT ANAIAK



Tramankulu barriak, motor indartusagoak, egazkaga txikiak, ezbearretan eriotzak... ori izan da orain artean egaz egiteko irrika bizian gizakiak ikusi dabena, baiña aurrerapen aundiak dagoz begien aurrean eta Wright anaiak izango dira egazkiñen aldi barri oneri asierea emongo dautsoenak.

Dayton'en Ohio laterrian eta 1899n. urtean ipar-ego artekoa guda amaituta laster mutiko bat sartu zan kale-artera bere txirrianduan eta atari baten gizonbi aurkitu ebazan eta eskuaz agur eginda igaro zan auxe esanez: Nire txirriandua zuek konpondu zenduenetik aurrera ondo dabil.

Irribarrez erantzun utsoen. Wright anaian ziran gizon bi areek.

Mutikoa zugatz-arten ezkutatu zan eta laiño bat agertu jakon buru-gaiñean eta anai biak egazkin barria zala uste izan eben. Itzal asko ikusteko egozan, errukariak!

Igazkiñai buruz idatzitako liburu guztiak erosi ebezan, erosi eta ondo arakatu, txikitatik euken egazkiñen jakinmiñak eraginda..

Lenengo eredu txikiak egin ebezan (Cayley, Pénaud), urrengo aunditxoagoak (Lilienthal, Langley eta Chanute) , eta Chanute'ri idatzi be egin utsoen aolkuak eskatzeko eta lagun aundiak egin ziran. Dana ondo aztertu-ondoren ez jaken peitzen tramankulu batera sartu eta aiderantz joatea baiño.

Asi ziran ba tramankulu ori egiten, baiña non probatu? Toki aldapatsua eta zugatzik bakoa bear eben eta aizeak eraz joten eban alde. Jakintun bateri itaundu utsoen toki ori non izan leitekean. Ondartza bat izendatu eutsen Karolina'ko ipar-aldean. Ara idatzi eben eta erantzuna artu be bai: Au eun km. luze dauzan ondartza leun bat da. Agustuan eta urrillean

aizea ipar'etik dauka. An ez dago etxerik eta zeuek eroan txabolak.

1900n. urtean ondar zelai aretan ego batzuk agertu ziran eta Wright anaiak aidean erabilli eben euren kometea., azkenean anai biak barruan zirala.

1901n. urtean eredu aundiago bat egin eben baiña ez eban ondo egaz egin. Azterketa barri bat bear eben. Eta txirriandua apaintzen ebezan artean, asmakuntza barriak egiten ebezan

1902n urtean irugarren tramankulu bat egin eben. Eta milla probaketa egin-ondoren 200 m.´ko egazkadea lortu eben.

Gabaz, ipar-aize otza puska ebillala, olatu apartsuak arrotzen zirala, anaiak euren txabolana lo egozan., Wilbur bare baiña Orville urduri: -Biar egaz egingo dot-, esaten eban onek bere artean.

Goizean anai biak jagi ziran eta aizearen bare-aldiaren zain egozan amarrak-inguruan euren saioa egitekotan.. Begiratzailleen laguntzaz lenengo saioa egin eben. Ezer lortu ez eta txabolara sartu ziran euren Flyer edo "egalaria" aztertzeko.. Atera eben ondartzara Flyer eta orretarako trebide luze bat egin eben eta gero txirrianduan baten ipiñi eben. Orrelan artuko eban abiadea aidera igiteko

Orville'k motorra biztu eban eta amar minutuan itxaron berotu eiten. Gero eldu utson esku-lekuari, askatu eben sokea eta burdin-gaiñean aurrera joaten asi zan tramankulua. eta 30 m.´ko bidea egin eban egaz. Amabi segundu egin ebazan aidean Lenengo egaz-aldia zan.

Beste iru egaldi egin ebezan eta azkenengoan 260 m. ´ko bidea egin eben 59 segundotan.

Gero tramankulu obeak egiten ikasi eben anaiak.

Baiña zerk eusten eutsen egazkiñari lurrera ez jausteko?

Legea Bernoulli'k idatzi eban 1738n. urtean: Aidea gauzen azala igortziaz igaroten danean, oneik egiten dautsen biratxua gitxitu egiten da eta zenbat eta azkarrago joan, aibat eta txikiagoa da bultzada ori" Aizearen beraren bultzada zan ba, egazkiña aidean eukiten ebana. Orrelan ba, egazkiñak lau indar artzen dauz: Gorantzakoa, lurraren erakarpena berantza, aurrera egiteko aizearen oztopoa eta aurrerantz daroan indarra motorretik eta elizetik.

Eta zelan gidatu tramankulua? Egoaren ertzari gorantza naiz berantza eraginda.

1904n urtean beste egazkin bat egin eben. Eta 1905n. urtean 38 minutuko egaldia egin eben, 40 km. bidea aidean, baiña beste urte bian ez eben egazkin egin euren patentea inok ostu ez egitzen. Gudarako egazkin bat eskintzen joan ziran baiña ameslari lez artu ebezan.

Euripa'ra be eldu ziran barri oneik. Wright anaiak ezagunak ziran Europa'n Txanute Paris'en egoalako. Asi ziran ba europatarrak egazkiñak egiten, onein artean Voisin anaiak baiña Dumond izan zan Europa'n lenengo motordun egazkiña egin ebana., 210 m. aidean 21 segundotan egitea lortu eban. Frantzian beste egalari batzuk be izan ziran.

1908n. urtea izan zan egazkiñen arloan gogoangarriena: Beste asmatzaille asko izan ziran Frantzia'n eta Ipar-Ameriketari, baiña Wright, len etxunda eroaten eben tramankuluak baiña asi dira jesarrita eroaten eta alboan lagun bat eroan be bai, baiña Wright anaiak banatu egin ziran, bata Ipar Ameriketara eta beste Frantzia'ko Le Mans'era.

Jenteak ez eban sinisten oraindiño egaz egite ori egia zanik.

Bein baten Wilbur jesarri zan egazkiñean, txapel nabar bat buruan ebala. Minutu biko egaldia egin eban eta zenbat txalo eta orrua jenteak!

Abenduaren 18n. egunean, gorantza igon eban 93 m. eta txapeldun urten zan, andik amabost egunera beste txapel bat irabazi eban: aidean denpora geien egotearena, ordu bi eta 20 minutu egon zan aidean.

1909n. urtean anai biak etorri ziran Dayton euren errira. Eta euren omenez egun biko jaiak egin ziran. Batez be gudaraiak laguntzeko egiten ebezan irakastaldiak, baiña beste batzuk asi ziran zabalkundea egiten.

Uzataillean Bleriot'ek Mantxa'ko ubidea igaro eban.

Reims'en egin zan egalarien batzarra eta 36 egazkin ikusi al izan ziran.

H. Kurtiss New York inguruan bizi zan. Lurrean arin ibilten zalea zan. Amabost urtekoa zala ikasteak itzi ebazenean, mekanika praktikatzen asi zan. Eta motorrean orduko 220 km. egiñaz munduko ibiltaririk azkarrena izan zan.

Kurtiss orrek motor ariñak egiten ikasi eban eta onak ziran egazkiñentzat. Baiña aspertu egiten zan, motorrak baiño astiroago joiazalako.. Alkartu zan Bell urrutizkiñaren asmatzailleagaz eta bien artean kometa bat egin eben eta gero egazkin bat. Onak 2 000 m. 'ko bidean egaz egin eban.

Egazkiñen aurrerapena ez zan gelditu: lortu zan egazkin ederrak, uretatik gora igoten ebenak eta goitik uretara jatsiten ziranak be egitea be.

Zurezko egazkiñak alde batera itzi eta metalezkoak egitea be lortu zan.

Errusia'n lau motor eukazan Grand egazkiña egin eben.

OLAZAR'tar Martin'ek

---

# MARKIÑAKO ERRIARI ERESERKIA

---

Mendiz inguratirik  
Zaitugu Mariña  
Bakean bizitzeko  
Erri atsegiña.  
– Euskeraren Zaindaria  
Zu ziñan antxiña  
Ta Kristoren legean  
Beti esaugiña.

Toki ederririk asko  
dituzu kolkuan  
Eliza bikañena  
Xemein inguruan.  
– Iru Konbentu polit  
dozuz or barruan  
ta pelota eskola  
onena munduan.

Lurrean zear dabil  
Markiñar ugari

Batzuk Kristoren morroi  
ta mixiolari.  
– Markiñaren izena  
mundu zabalari  
Aitzen emoten barriz  
Ainbat pelotari.

### Kale - jira

1) Gu Mariñarrak garala  
Munduak jakin daijala  
Eta Euskera maitatzen  
Lenen Markiña dala.  
– Gozen bai, gozen bai  
Markiñar danok beti aurrera  
– Gozen bai, gozen bai  
biotzak alaitzera.  
2) Guk Mariña maite dogu  
Danen aurrean diñoogu  
Ta Markiñar izateak  
Pozik jartzen gaitu gu.

– Gozen bai, gozen bai...  
3) Jakintsuak diñoena  
Antxiñatik entzun dogu  
Dala Markiñarrena.  
– Gozen bai...  
4) Gipuzkoan Tolosarrak  
Ta Bizkaian Mariñakarrak  
Ditu zaindai onenak  
Euskera Ama zaarrak.  
– Gozen bai...

### Amaitzeko

Zorion ta bakea  
Markiñako Erria  
Zorion ta bakea  
Mariñako Erriari  
bai, bai, bai,  
bai, bai, bai.

AGINAGA'tar MIREN  
KASILDE'K BIALDUA



---

## AGUSTIN KARDABERAZ (1703-1770)

---

Nortasun aundiko ernaniarra dogu au. Batez be bere berba oneik dira kontuan artu diranak: "Euskerak burua jazotzea Jainkoak nai du".

Orregaitik izan zan Gasteiz'ko Seminarioan, gudaurrean sortu eben bazkun baten zaindari. Orainsuago talde orrek jarraitu eban Tolosa'n eta ortik sortu zan Euskerazaintza Erri-Akademia.

Josulaguna eta gorengo mistikua, sermolari bikaiña eta idazle aberatsa izan zan.

Larramendi'k erderaz egin ebana, onek euskeraz egin eban eta aldelari edo apolojisten artekoa dogu.

Jesus'en Biotzari eutsen oneraspen aundia eta beronek egin eban Bilbao'ko San Anton'en gai oneri buruz erdiugarte onetan egin zan lenengo itzaldia (1733).

Loiola'n bizi izan zan bizitza osoan eta errietan Gipuzkoa osoan egin eban misiolari-lana, baiña III Karlos Erregeak josulagunak erbesteratu ebazenean (1770) Bolonia'ra joan bear izan eban eta il be antxe il zan.

15 liburu idatzi ebazan euskeraz, esaterako "Kristiñauen bizitza" (1744) eta "Euskeraren barri onak" (1761). Azkenengo au da garrantzitsuena eta euskeraz idazteko arauak dira. Emen dator esan dogun esaldi ospetsua.

Eritxiak: P.Lafitte'k auxe diño: "Hil zen saindu bat bezala, goxo goxoa eta geroztik Dohatsuen lerroan ezarri du Eliza Ama Sainduak

Manuel Lekuona'k beste au: "Gauza bat aitortu bear degu, Aita Kardaberaz'en liburuai etzaiela orain arte, gure artean, bear bezelako ixtimaxiorik ekarri, erabilten duen lexikoan erdal-itx askotxo ditualako nunbait. Baiña egia esan, ori gorabera, Aita ernaniarraren prosa oparoari mami bioztun eta ixuri ederra aitortu bearra daukagu: mami bioztun eta ixuri leun."

Ona emen irakurleak aztertu dagizan idatz-zati bi:

1) "Gure baserrietan jende prestuak dirauten artean, euskerak iraungo du. Esan oi dena: oiei lepoa ebagi eta bizia kendu gabe, euskera ezin utzi edo kendu daiteke"

2) "Noiz eta nondik edo nola gure euskera onontz etorri zan, nork daki? zerutik, edo Jaungoikoagandik, gizoinen asmazio gabe, orien gaiñeko gauza bezala etorri zala, euskerak berak bere era eder eta armonia pare gabean, ondo seguru esaten edo adierazten du. Beste izkunde edo lengoajeak, nork daki nastu eta batera ta bestera nola ibilli diran: Euskera, Jainkoak naita, mendiarte oietan beti nasgabe, beti garbi, beti seguru beregan gorde izandu da..."

---

## PEDRO ANTONIO AÑIBARRO (1748-1830)

---

Arratiarra dogu Añibarro, Areatza-Billaro'n jaioa.

Bilbao'n artu eba San Frantzisko'ren jantzia eta eleiz-ikasketak amaitu ebazanean, ainbat lekaidetxetan izan zan nagusi, baiña 1790n. urtean Zarautz'era joan zan, Misiolari Ikastetxera, eta antxe bizi izan zan 40 urtean.

1794n. urtean eta geroago, Frantzia ta España'ren arteko burrukak zirala- ta gorriak ikusi bear izan ebazan.

Zarautz'en egon zan aldi lan eder asko idatzi ebazan bere lumea bizkor eta trebe erabilliaz, euskeraz naiz erderaz, erriz-erri misiolari-lana egin eban; zazpi liburu idatzi ebazan euskeraz eta erderaz eta idatzien artean ezagunena "Gramatika Baskongada" da, ona, batez be aditza aztertzen dau, naiz Bizkai'koa naiz Gipuzkoa'koa naiz naparrerazkoa.

Ona emen idatz-zatitxu bat:

"Sinistu eidazue, neure maiteak, Jesusegan, eze irekaste au gorde ezik, il-otzituak urtengo dabela zuen berotasunik

ixetuenak. Zer bada? Jausi zan Salomon, jausi zan Dabib, jausi zan Sanson, jausi zan San Pedro pelligruzko okasiñoan ifinirik; bada gu argalok zelan jausi ta laprast egingo ez dogu bekatuan gatx-bide ta ondamendi deungetatik alde egin ezik?

Alperrik negar egingo dozue; utsak izango dira oraziño ta libru santuen irakurtzak; igartuak urtengo dabe zuen egitekork onenak, ta ez tira prestu zuen propositurik sendoenak, okasiño bekatutsuetatik urrinduten etzareen artean; lagun txarretatik iges egiten eztozuen bitartean"

Ainbat urte dirala parrokiko garizuma-berbaldietan entzuten genduzan itzaldiak dakarskuez gogora olako idatz-zatiak. Eta euskera-arloan irakurri doguz idazle obeak.

OLAZAR'tar Martin'ek

## 5.- MEDUSA'REN BURUA (Argos)

Akrisio zan Argos'ko erregea eta azti batek etorkizuna agertu eutson: Danae bere alabearen seme batek kenduko eutson bizia. Aita izan eta laster aitita izateko egoan Akrisio'rentzat atsekabe aundia zan ori.

Zelan iges egin etorkizun baltz orreri?

Lenengoz aitita izan arte geldi geldi eta pentsa eta pentsa urduri egoan.

Jaio zan alabearen lenengo seme ori eta aitita pozik egon bearrean artega ikusten zan.

Danae'k Perseo ipiñi eutson Jupiter'en egitez lortua zan seme jaio-barriari.

Akrisio erregeak erabagi gogorra artu eban azkenean. Bere mirabeari alabea eta onen semea, Danae eta Perseo, kutxa baten sartu eta itsasora botateko agindu eutson.

Ur-gaiñean ara ta onan ebillan kutxa eta azkenean leorrera biurtu zan, Polidetes'ko lurraldean. Jakin eban ori bertako Erregeak eta ama-semeak beragana eroateko agindua emon eban eta ondo zaintzeko esan eutseen bere morroi eta mirabeari.

Danae emakume ederra zan eta Polidetes'ko erregea beragaz maitemindu zan, Danae'k ezkontzeari ezezkoa emon eutson, Jupiter'egandik eukan semea zaindu bear ebalako.


Urteak aurrera eta, Perseo, Danae'ren semea, gazte mardul biurtu zan.

Polidetes'ko erregea geroago ta artegeago egoan eta Perseo ez eban bego onez ikusten eta mutil oneri agindu eutson medusaren billa joateko eta onen burua ebagita ekarteko. Ziur egoan erregea ez ebal bizirik urtengo.

Perseo ezelako bildur barik joan zan agindu ori betetera. Ez ekian medusa mamu ain bildurgarria zanik. Jupiter'ek lagun bi emon eutsozan: Minerba ta Merkurio. Onek esan eutsoen Perseo'ri, Grea izeneko iru atsoren kobara joan bear zala lenengo eta an esango ebela Medusa non egoan, baiña aide ziran lez, maltzurkeriz atera bear zala albiste ori.

IBillaldi luzea egin ondoren, eldu zan Perseo iru atsoen kobara. Arrigarriak ziran! Irurak begi bakar bat euken batek ikusteko, beste biak itsu geratzen ziran artean.

Urreratu jakin Perseo astiro-astiro, eta aldaketa egikeran begi bakarra berak artu eban. Irurak itsu geratu ziran garrazi aundiakaz begia eskatzen, baiña Perseo'k emon gura ez! Errotekotan, lenago Medusa non bizi zan esan bear eben.



dana lortu eban Perseo'k eta adoretu urreratu zan Medusa'ren bizilekura.

Sartu zanean, lotan aurkitu ebazan medusa ta lagunak eta ezpataz samea ebagi eutson Medusa'ri eta ekarren zakuan burua sartu. Beste barik, ariñeketan alde egin ebazn. Etorri jakozan atzetik, baiña Perseo'k oiñetako egodunakaz ariñago egiten eban.

Perseo etxeratu zanean, Polidetes'en jauregira joan zan eta onen aurrera eroan eben. Agindua bete ebala esan eutson Perseo'k eta sakutik atera eta Medusa'ren burua erakutsi batera.

Lurralde barri onetan, joko batzutan Perseo'k bere trebetasuna erakuti nai izan eban eta diskoa jaurti eban norgeiagan. Baiña aizea zakarra zan eta okertu egin zan diskoaren bidea eta an egoan agure bat il eban. Agure ori Akrisio bera zan. Orelan bete zan aztiak esana, Perseo'k bere aitita ilgo ebala...

OLAZAR'tar Martin'ek

# HEGEL'EN AURKAKOAK

Hegel, esan dogu, idei-bideko edo idealisten artean filosofo rik aundiena izan zan, baiña, azkenean, idei-bidekoa. Orregaitik, alde batetik eta bestetik, aurkalarari asko agertu jakozan, begien aurrean daukaguzan gauzak garrantzia eukela eta kontuan artu bear zirala uste eben filosofoak, materialkeria maite ebenak. Batzuk buru argiaren bidea itzi barik eta beste batzuk, Anglenderri'ko sensistak, Augusto Comte aurrerengo dala, zentzunen bidera edo enpirismora makurtuta. Oraintxe bertan aitatu daiguzan Feuerbach, Marx, Schopenhauer, Kierkegaard, Nietzsche.

Filosofo oneik, geienak, sendiz eta jaiotzaz beintzat, Jainko-zaleak dira eta batzuk protestanteen eleizetan artzainen seme eta eleizkide bizi diranak. Eta Hegel'en Askea edo absolutua ukatu arren, Jainko-zaleak dira, gizadia Jainkoaren lekuan ipintzen daben, Marx'en antzekoren batzuk izan ezik.

## FEUERBACH (1804-1872).

Teologia ikasi eban eta Berlin'en Hegel'en ikasle be izan zan. Ez eutsoen irakasle izaten itzi, arimea illezkorra dala ukatu ebalako. Orregaitik idazkiak eta itzaldiak egitea izan zan beronen lana.

Asieran Hegel'eri jarraitzen eutson eta adimen bakarra ta mugabakoa onartzen eben eta orra sartzen ebazan gizaki guztien adimenak (Averroes'en adimen egille banatua agiri da or).

Baiña laster alendu zan Hegel'en bidetik eta aurreko gauzak diran lakoak onartu-bearra ikusi eban: Gauzak zentzunakaz artzen doguz, ez ideiakaz. Eta ortik materialkerira jausi zan eta Jainkoaren lekuan gizakia ipiñi eban. Gero Marx'ek artuko dau erlejiño-orde ori.

Gizonak bere izatea "iñorendu"edo "alienatu" egiten daua-la diño (berba au be zabal agertzen da Marx'en liburuetan) eta Jainkoa izpilluan lez ikusten daua. Ori dala diño benetako kristiñautzea eta erlejiñorik onena, gizona Jainko burtzen dauana, benetako gizakundea. Baiña banaka ez gara ezer, besteakaz alkartuta gizadia sortzen dogu Kristok aldarrikatu eban maitasunaren bidez. Eta ori dana egiteetara, praktikara, eroango dau Marx'ek.

## MARX (1818-1883)

Marx ulertzeko zeaztasun edo noziño batzuk lenengo: Sozializatu diñonean, ulertu jabetasuna ukatzea edo gitxienez lanerako tresnak jabebakoa edo laterriarenak izatea. Plusbalia diñoan auxe ulertu: Gauza bat lanaren bidez egiten danean, zor dana ordaindu jabeari naiz langilleari eta orren gaiñera ugazabak ezarten dauna da plusbalia. Plusbalia ugazabarentzat artzen danean dirutza edo kapitala ugaritu egiten da eta langilleak berea galtzen dau, iñorendu, alienatu, egiten da. Langilleak agin-pide gogorra lortu bear dabe, kapitalismoa azpiratzeko, ori da "diktadura del proletariado. Eta bear dan beste aldi orretan igaro-ondoren, bakoitxaren jabetasun-bako gizadia, atsegin-baratza edo paraisoa etorriko da. Giza-maillen burrukea (lucha de calses) Langilleak kapitalisten aurka. Fokoa esaten jako dialektika orretan iztillu asko batzen dauzan jazokizunari.

Marx'en gurasoak judatarrak eta esku-zuriak edo burgesak ziran. Marx bateatu egin eben luterotarren eleizan beste zazpi anai-arrebagaz batera, bateatua izan bear zalako lan liberalak egiteko..

Aitak txikitatik buru-argidunen bideak irakatsi eutsozan, Rousseau eta Voltaire'ri jarraituz eta bere kontura irakurri eban Hegel.

Irakasle izan nai eban baiña ez eutsoen itzi eta izparlari edo periodista lez egin eban lan, baiña emen be laster agertu jakozan arerioak.

Ezkundu be egin zan eta sei seme-alaba sortu, baiña iru baiño ez jakozan bizirik geratu. Aita ona ta maitekorra zan.

Paris'en egin zan Engels'en lagun aundia eta lankide be bai, sarritan ez da jakiten idazkiak bereak ala Engels'enak diran.

Proudhon anarkistea be lagun izan eban baiña 1846n. urtean asarretu ziran.

1847n. urtean sartu zan "Liga Komunista"ra eta manifesto edo agiri nagusia agertu eban (U.H.P.), batez be Proudhoan eta Bakunin'en aurka. 1845n. urtetik aurrera London'en bizi jaku, beste leku guztietan aurrean erabilten ebelako. 1873n. urtetik aurrera isiltasunean bizi izan zan.

**DIALEKTIKA:** Marx'ek filosofia, politika ta ekonomia bat egiten dauz, materialismuaren bidean eta orretarako Hegel'ek asmau eban dialektika artzen dau dana aztertze-ko: Aurrean dagoana ta tesis, gure buruak artzen dauana antitesis eta gure jakintza sintesis. Gizona materia utsa da eta beronek aldatu bear dau materia ori "lana" bide dala eta orrelan sortzen da "homo oeconomicus". Or sortzen da iñorentzea edo alienaziñoa, lan-tresnen jabeak oker jokutzen dabelako eta lanaren frutua ondo banandu ez. Gizon barria sortzeko iñorentzea kendu egin bear da, giza-mailla edo gizarte-klaseen burruka bide dala.

Iñorentzea, alienaziñoa kendu bear da erlejiñoen bidean: Bera ez zan jaio jainkobako, baiña ori aukeratu eban gero, erlejiñoak iñorentzea dakarrelako, kristiñauak, esaterako jopuak izatea eta apaltasuna onartzen dabez. Mundugintzarik ez dago, gizonak berak egiten dau bere burua ta mundua (Hegel).

Iñorentzea kendu bear da filosofian, burubidea ta eginbidea banatzen dauzalako eta mundua aldatu egin bear da burubideagaz.

Iñorentzea agertzen da politika-bideetan, orregaitik laterria kendu egin bear da orretarako Langilleen Agintaritza gogorra edo Diktadura aldi baterako ezarrita

Iñorentzea kendu bear da gizarte-bidetik, giza-maillen arteko burrukea eginda, bakoitxaren jabetasuna kendu eta burgesak alboratu arte.

Iñorentzea kendu bear da ekonomi-bideetatik: Tesis burgesia da, antitesis langilledia eta sintesis billatzen dogun gizarte barria. Plusbalia gizarteratu bear da.

Marx'ek erlejiñotik artu dauz gauza asko: Pekatua, miseria, ber-erostea edo erredentiñoa, paradisia... eta oiñarrian Israel Ejipto'tik urtetan agiri da.

Eun eta ogei urte igaro dira edestian Marx jaio zala eta zeintzuk izan dira bere irakatsien ondorenak?

Asko aurreratu da langilleen egoera, (Marx barik be egingo zala? ez dakigu), ez da kapitalismoa ondatu, laterri batzutan sortu da Komunisten Aginterri gogorra baiña paraisua etorri bearrean ondamendia ekarri dau aginte orrek: Korea'ko iparraldean, Berlin'eko sortaldean, Kuba'n, Txina'n (orain asi dira azoka-bidera sartzen eta aurrera egiten) eta batez be Rusia aundian. Eta zenbat milloi gizon, (batez be Rusia'ko baserritarak) orretarako eraillak! Indar aundia izan eban Marx'en gizartean, baiña ondoren txarrak asko langilledia aurretzea lortu arren. Pantsateko gauzea da!

**EUSKERAZALEAK**

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

# BBK

# txartelak



## **BBK txartelek opariak gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein  
BBK txartelekin eta, hilero,  
itzelezko opariak irabazi ahal  
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk<sup>2</sup>**